

GAYRKO OLERKARIEN EYSKAL LAN AYKERATYAK

SANTIAGO ONAINDIA



BURUAK LAUAXETA SAILLA ERRIKOI LIBURUAK LAUAX

GEU ARGITALDARIA

GÄYRKO OLERKÄRIEN

EYSKÄL LÄN ÄYKERÄTVÄK

© Santiago Onaindia
Geu Argitaldaria

Legerako Gordetza: BI-2336-81

ISBN: 84-85328-13-2

Argitaldaria: GEU.
Mazarredo, 19, Bilbao-1.

Banatzaillea: San Miguel.
Mazarredo, 19.
Telf. 424 76 98 y 423 16 55.
Bilbao-1.

Irarkola: Boan, S. A.
Particular de Costa, 12-14
Bilbao-10

SANTIAGO ONAINDIA

**GAYRKO OLERKARIEN
EYSKAL LAN AYKERATYAK**

Editorial GEU Argitaldaria

JESUS MARIA AROZAMENA

Donostia'n jaioa 1918-I-19'an. Madrid'eko Ikastetxe nagusian ikasi eban Eskugoa eta Donostia'n irakaslaritza. 1937'tik Donosti'ko "La Voz de España"-ren zuzendari-ordezko. Asko dau euskeraz ta erderaz. Ona bere liburu batzuk: *San Sebastian, biografa sentimental de una ciudad*; *Jesus Guridi, inventario de su vida y de su musica*; *Ene ixil-oivak (eta Donostiko bertso ale batzuek)*; *Viejas canciones donostiarras (Donostiko kantu Zarrak)*, eta abar. Euskeraz "Egan"-en idatzi eban batez be.

Arnas bat bederik

Arnas bat, Jauna, arnas bat bederik,
ur tanta bat aski,

ito zorian egarri.

Il baño lenagotik
gogoan nere egunak, txarrak edo onak,
oro bat berdinki.

Nere egunak oraindaño, bizkar gañean
itsu;

gaurtik geroa begiz-begi
ez bait dut nai

zure aurrean

esku

utsik ageri.

Arnas bat, Jauna, arnas bat bederik,
ur tanta bat aski ito zorian egarri.

Arnas baten bidez

lurbira sortu betiko;

Zer ote da obe: arnas bat luze goizean,
bat gutxio gabeari

O, zoramen Akelar!
Arnas bat, Jauna, arnas bat bederik,
ur tanta bat aski, ito zorian egarri.

JUAN DIHARZE

Donibane-Lohitzun'en jaioa, 1920-I-4'an. Beneditarra. Euskaltzain osoa. "Eskualduna"-n, "Gure Herria"-n, "He ia"-n, Euzko-Gogoa"-n, "Gernika"-n, "Egan"-en, "Olerti"-n, "Principe de Viana"-n eta abar idatzi dau. Lau olerki bilduma daukaz argitalduta: *Pindar eta Lano* (1954), *Zeru-mendi* (1959), *Argiz-argi* (1969) ta *Uhaineri nausi* (1975). Eta besteok: *Salmuak*, *Eskual Herria eta Jainkoaren Gizaldea*, eta abar. Ikus MEOE, 1147 orr.

Oi mendien gaiñetik

Oi mendien gaiñetik bazterren zabala!
Goiz-et-arrats kantari airosik nabila.
Gaizkian dabiltzanak ilunik daudela:
nik bihotza arin dut xoria bezala.

Dena izar danean zoin eder zerua!
Garbia den bihotza bihotz dohatsua.
Bidean noalarik, oi ene kantua!
Deus lanorik ez baitut soa ilundua.

Oi, izarrak dirdiran, gauaren bakeal
Zerurako bidea zoin bide luzea.

Zu ganat nabilazu, zeruko Maitea:
laster bekit emana zure ikustea.

Mendi gaiñen gaiñetan elurra zoin xuri!
Bego nere bihotza hekien iduri.
Bizian nausi bedi ilunbe orori
hel nakizun, oi Jauna, goiz batez kantari.

MIXEL LABEGERIE

Ustaritze'n jaio zan 1921 -III-4'an. Osagille ta Kanbo'-ko alkate. Euskaltzain urgazlea. "Eskualzaleen Biltzarra"-ren buru. "Herria"-n eta "Gure Herria"-n idatzi dausku. Disku bi daukaz, oso ederrak eta Euskalerrian asko zabalduak, gaurko olerkiz eta musikaz orniduak.

Nafarra, oi, Nafarra

Nafarra, oi Nafarra, Euzkadi lehena,
ederra zan ametsa zure erregena.

Arrosa bat urrezko zazpi hostokoa,
errege ahur baten neurri batekoa,
edozoin baratzetan ezin sortuzkoa,
Zurean zen loratu batasun gogoa.

Nafarra, oi, Nafarra, Euzkadi lehena,
nun da amets ederra zure erregena?

Entzuten da kantatzen zure gaztelutan,
uztai harri xaharren erreberietan

Santxo-ren hil hobitik ilun nabarretan
beti jalgitzen diren hasperen trixtetan.

Nafarra, oi, Nafarra, Euzkadi lehena,
egin zazu ametsa zure erregena.

Azkarrena zu zinen zazpi anaietan
zure katetan preso nork zaitu ba eman?
Xuti zaite ta jalgi errege jauntzitan,
batasun berriaren arrosa eskutan.

Nafarra, oi, Nafarra, Euzkadi lehena,
ederra zen ametsa zure erregena.

NIKOLAS ALTZOLA GEREDIAGA

Izurtza'n jaio zan 1922-XII-30'an. Lasailletarra. Euskaltzain urgazle. "Nora?" aldizkaria beronek sortu da zuzendu eban. Euskeraz ta erderaz idatzi dau. Euskeraz: "El Bidasoa", "Aranzazu", "Zeruko Argia", "Gure Herria", "Principe de Viana", "Olerti", "Egan", "Euzko-Gogoa", "Euskera", "Herria" ta olakoetan. Bereak ditu: *Cien autores vascos, Atalak eta Bigarren Atalak.*

Maitasunez

Ez eban kurutze txikia eruan berak
bizitzako

kalbario-bidetik
gora.

conum", eta olakoetan. Liburuak: *Mogel, bere bizitza ta lanak, Zirikadak, Eztenkadak, Zaldun bitxia, Sinerako liburu, Kantak eta poemak.*

Bakarrik

Anaiak ikusirik gurutzean
pena daramat biotzean.
Justuak beti dira katepean
gaitzak menderaturik, zoritxarrean.

Bakarrik naiz,
bakarrik
nere errian.

Bakarrik ere biotza taupadan
malkoak ixuriz odolean.
Herodes-en eskua da legean
ta Kain agintari gure errian.

Bakarrik nago,
bakarrik
ames beltzean,
bakarrik
nere errian.

Era errukabeen,
an erbestian, antxe urruñean,
arima dago giltzapean.

Bakarrik nabil,
bakarrik
neke tristean.

Errazoa dala indarrean
okerra nagusi lurean,
anaiak dirala zigorpean.

Bakarrik nijoa,
bakarrik
nere bidean,
bakarrik
neke tristean,
bakarrik
ames beltzean,
bakarrik
nere errian.

Ur gardenik ezta iturrian
eguna eten da illunabarrean.

Bakarrik naiz,
bakarrik
nere errian;
bakarrik nago,
bakarrik
ames beltzean;
bakarrik nabil,
bakarrik
neke tristean;
bakarrik nijoa,
bakarrik
nere bidean.

Egun-senti batean
arkituko al naiz libertadean.

JEAN MIRANDE AIPHASORO

Bere gurasoak zuberotarrak ziran arren, Paris'en jaio
zan 1925-XI-12'an; eta bertan ii zan 1972-XII-28'an.
Eskugoa ta Ele-jakintza ikasi ebazan Paris'eko Ikastetxe

nagusian. Euskaltzaiña. "Gernika", "Euzko-Gogoa", "Egan", "Igela" ta olakoetan idatzi euskun. Umore baltzezko lanak atsegin yakozan. A ilda gem argitaratu% dira: *Idazlan Hautatuak* (Bilbao, 1976) eta *Orhoituz*, poema guztiak, XXXIV (Bilbao, 1976). Ikus MEOE, 1156 orr.

Orhoituz

Zaldi beltzak irrintzika zeuden.
Sutan ziran inguruko zelai
gorak. Hartzen genduen atsedean,
alargunen intziriez alai.

So ziraden, bekaitz, saiak oro
giza-hiroz ok egin beharrez.
Garoetan neska sabel naro
zaurituen odola nigarrez...

Gau joriak zital hotz zerion
geure bihotz-min-gai ta zorion
orhoitua gizaldiz gizaldi.

Lagun! Hilkar-lore baratzetan
genbiltzanok, ilargi zuritan,
noiz dukegu, diztirant, Eguerdi?

JUAN MARIA LEKUONA

Oiartzun'en jaio zan 1927-XI-11'an. Apaiz karrera Gazteizko apaiztegian ikasi eban, Errorna'n amaiturik. Euskaltzaindikoa. "Olerti", "Egan", "Zeruko Argia", "El Bidasoa" ta olako adizkarietan idatzi dau. Bereak ditu:

Ezkongai, itz-lauzko lana, ta olerki-bilduma biok, *Mindura gaur* (1966) eta *Muga beroak* (1973). Olerkari fiñ sakona. Ikus MEOE, 1073 orr.

Errota zaar

Errota zaar maitea
uraren ertzean.
Uraren ertzean da
basati beltzean:
Negar egiten dezu
alea txetzean.
Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean.

Zotin sekua dagi
errotarriak.
Itzalitako izar-dizdirak
dira neretzat zure begiak.

Izar eder bat dago
or goiko lepuan.
Errota zaarra, berriz,
erreka zokuan.
Berebiziko pena
ba-daukat barruan:
Ezin gindezke bizi
elkarren onduan.

"Ez da geiago zuregan
errota-arriaren itzik entzungo."
(Apok. 18,22)

Bizitza-legea
nai det onartu.
Orrela bearra
koraiaz artu.
Berez dijoana

zertan beartu?
Nigan, ordea,
ez nauzu piyo;
nere almenak ez du baliyo.
Sentitzen ba'det
berriz aren kanta
(errotaren tranka),
barne-minduraz nagoke berriro...

Errotaren oiuz
maluraz nauzute.
Zigor au nerekin
izango det beti
iltzen naizen arte!

Goiz-argi

1. Ezerez, uts, illun gauz denak gauean:
sorkunde berri bat eguna astean.
Argiaren atsak uki gaudiari...
So nago gauz denen agerkundeari.
Illunpe artatik antxe zaizkit ager
lenengo mendiak, gero soro musker.
Eguna jaio da. Zenbait margo eder!
Argiak pizteke ez da geldi ezer.

* >|< >|<

Zenbat ederrago argi xuxpergarri,
ainbat ederrago ager zait Izadi.
Udazken-goizetan txuria argia,
orobat orduan mendien garbia.
Iñoiz baiñan, baita
—illunabarrean-
odei odol gorri...

Argiak bait-ditu su-garretan jarri.
Argi! Gauz denak, zu zeranoi zaizkigu:

Zure dirdir eder, bizi, pizgarria
ezpa-litz...nun ote gauzaren bizia?

2. Nere gogamena iges dijoakit
argia bera dan Jaunaren ondotik.
Ez nago lurreko argia ukatzeko.
Baiñan gauz guztiak ederragotzeko,
txinpart bat nai nuke jainkotiarrago,
dirdir bikaiñean.

BIKTORIANO GANDIAGA

Mendata'n jaio zan 1928-X-8'an. Frantziskotarra. Arantzazu'n, Zarautz'en eta Olite'n osotu eban bere eliz-karrera. Euskaltzain lagantzaille. Olerki-sariak jaso dauz; baita "J. A. Agirre Saria"-rena be, 1962'an "Arantzazu", "Egan", "Olerki" ta abar idatzi dau. *Elorri*, olerki poema, eta *Hiru gizon bakarka*, poesi-bilduma. Olerkari urduri, barrenkoi. Ikus MEOE, 753 orr.

Nire naiaren jo-muga

Nire naiaren jo-muga
dagoan aide leunean
dena da naiarizkoa.
Ba-dakust tokia ez dan
edatura atsegin aura
antxen, gurariak sortu
ta iraupen aratz bat eman
oi daroatson goi artan;
ta ara-bidez noa alaiki.

Nire naiaren jo-muga
dagoan aide leunera
ez dakit zer joanaldi
legokean; baiña pozik
noa aruntza aspaldi dala.
Ta aura ba-doa aurrera argi
ta illargi bat bezela jat
piñu arteko kaltzadaz
gabaz etxera noala.

Nire naiaren jo-muga
joran-lurrunezkoari
neuklurrunezkoari
neuk damotsat izatea;
ta ari hegira bizi naz
ta arek goratu naroa
ta ari zor naiako osoro
ta aren ondoren noala
ba-daroat ongi artaz
atsegin zoragarri bat.

Nire naiaren jo-muga
dagoan naiariraiño
iritxiko naz noizbaiten.
Ta atzerritikan igesi,
noiz eder aura atzemango,
pozarren noa igon-ala.

Altu, argi t'eder dago,
ta illargi bat bezela jat
gabaz etxera noala.

ALFONSO IRIGOIEN

Bilbao'n sortua, 1929-XI-14'an. Jakintza ta arlo oni dagokiozan gaiak ikasi ditu. Euskaltzaiña. "Euskera" aldizkaria zuzendu dau. Bertsolarien saio ta ekiñak asko sustatu dauz, or-emen. "Egan", 'Euskera', "Anaitasuna", "Principe de Viana" ta abar idatzi dausku. Bereak dauz: *Sorterriaren aide* (1976), eta *Herrian gara bizi*" (1979).

Bidean zear

Egun batean
gizon baten
eta bestearen
eta bestearen
itzal pillatua
deadarka
asiko da
eta
zapaltzen duen arria
azpiratuko du
eta
arrian
zimentua artuko du
mundu justuago bat erakitzeko.

Atalaia bat naiz

Atalaia bat naiz,
begira nago maiz:
Begira nago, begira,
hegira munduari
nire bular barrenetikan.

Begira nago, begira,
hegira gizonari

nire indar errenetikan.
Begira nago, begira,
hegira erriari
nire sustar sustarrenetikan.

Atalaia bat naiz,
hegira nago maiz.

MARTZEL AND RINUA

Markiña'n jaio zan 1930-VIII-18'an. Pasiotar; Gazteiz'en eta Urretxu'n osotu ebazan bere ikasketak. Euskaltzain urgazlea. "Redención", "Jesus'en Biotzaren Deya", "Txistulari" eta "Anaitasuna" aldizkarietan idatzi dau, Antzerkitxo oneik bereak ditu: *Zoro-etxean*, *Satands Sotanas*, *Au dok umoria* ta *Batek ba-daki*. Bere olerki liburua: "Bezka" (1981).

Ikasi ondo sufritzen

Atzo, gaur eta biar, beti neke-miña;
ume, gazte ta zarrak illeta bardiña.
Len, orain eta gero betiko dotriña:
neke-miña geugandik aldendu eziña

Nok ete dau errua, Jaungoikoak Barak?
Batzutan iñok, eta bestetan norberak.
Oker egin ezkeru munduko aukerak,
ortik datoz miñezko milla gora-berak.

Asmo txarrez etorri, naizta berez sortu,
eraz artu ezkeru onik asko lortu...
Jaunaren "deia" dozu, ez biotzez gortu;
olakoan, amaika oi dira bixkortu.

Dana da neke-miña... ez dago jainkorik?
Bai, biak ortxe dagoz alkarren ondorik.
Obe dozu fedean iruntsi osorik:
Zelan leiteken izan nigaz olakorik?

Jaunak ez eban sortu gure neke-miña,
Jesus'ek lez onartzen egin alegiña.
Izan gura ba'dozu azkatzaille fiña,
bide bakarra dala eukizu jakiña.

Zigorrak ta zauriak, iseka ta txistu...
nor ta zenbat zarean zuk ortxe egiztu.
Alai ta sendo iraun, maitasunez biztu:
"Tomas" askok zukan be baietz gaur siñistu)

Zenbat maitatzen dozun nai ba'dozu jakin, ainbat sufritzen
dozu, neurria da bardin...
Maitatzean sufridu, beti ez da atsegin...
sufritzean maitatu, egizu alegin)

Bizi-penitentzia —ba-dago naikoa-
gizona onduteko da sekulakoal
Baiña kontuz ibilli: ez mindu urkoa;
on-egiñaz bentzidu zeure kontrakoal

Nai ba'dozu, aixkide, egiz zoriona,
jakin egizu ondo au zeugan dagona.
Neke-muien aurrean zaindu gogo ona;
jokatu bildur barik, ori da gizona!

Ikusiak ikusi, au ezin ukatu;
ta bizitzan zear sarri gogoratu:
Au dala "gaur txar baten penazko ostatu"...
Ez emon leiken baiño geiago eskatu I

XABIER ARANBURU

Ondarrabi'n jaio zan 1931-IX-4'an. Madrid'eko kaze-
taritza ikastetxean osotu ebazan bere ikasketak, eta gaur,
kazetari bezela, Donostia'ko "La Voz de España"-n idaz-
ten dausku. Euskeraz, barriz, "Olerti", "Zeruko Argia",
"El Bidasoa" ta olakoetan argitaldu ditu bere lanak.

Sarats bezela

Gizonaren bizia
illunean argia.

Gizona,
bizitzaren zubian,
ani tartean
jaio bezalako saratsa;
besoak,
ardazkak.

Zubipean, ura,
zainetan, estura.

Sarats ardazkaren punta
ibai arpegiren ondoan
zealdokatutzen da;
barru-barruko naia
bein ere aseko ez da.

Gizona: sarats;
bizia: ur;
bien tartean,
zubipeko aize otza.

Baiñ an...
Saratsaren indarra
bere biurkortasunean;
zaiñaren indarra
arri tartean.

Gizonaren indarra
bere batasunean.

Laja dezagun
irriyoa,
itxasora
joatea.

Egunaren bukaera,
gaba.
Gabaren bukaera,
eguntxinta.

Gaba eta egunaren
tartean,
gazi-gozoko
argi illa.

Nik ikusi ditut
andriaren negarrak,
umeen
farrak,
gizonen makarrak.

Sarats bezela makurtzen da nere biotza
zugana, ama, nere lore-bizitzen iñontza.

Piñozar bezela, tontorra daukat zeruan,
zuga, Jauna, nere nai indartsuaren buruan.

Sarats eta piñua
aiziaren jostaillua.

Lurra eta zeruaren
tarteak:
ezertasuna.
Ni erdian:
batasuna.

Lur,
aize,
zerua.
Lurreko
irutasuna.

Seme,
Gogo Guren,
Aita.
Ondar,
aize,
urdiña.

Gizona
beti erdian.

Itza abean,
biotza, gorputzan;
bildurra animan.

Itz,
gizonaren
pitz.

Aba,
egi ta gezurren
kutxa.

Begiak,
argiak.

Gizona,
illuna.

Non dago
egia?

MARTIN ITURBE BALDA

Ikaztegieta'ko "Muñoa" baserrian jaioa, 1932-X-9'an. Gazteiz'en eta Donostia'n osotu zituan bere apaiz-ikaskizunak. Gaur Ondarribi'n daukagu apaiz. Euskaltzale leuna. *Margo ederdun Enziklopedia* deritxan "Xomorroen mundua" berak euskeratua da. "Kamara Agraria"-k urtero antolatzen dauan sariketan saritua izan da aurtan (1976). Olerki ixurtegia, Irun'go sariketan urte bitan emon dautsoe leen-saria. Bereak ditu poesi-liburu biok: *Bizitzako Urratsetan* (1973) eta *Asekaitz* (1974).

Nor naiz ni?

Aixa dabil,
egoaren jostaillu,
kezkaren ezpataz
barne-muñia
urratu gabe daraman
udazkeneko
orbel igarra!
Itxaropena galdu duan
gizakiaren
irudi makurra
da
orbel arina!!
Nolaz edo zertaz
kezkatu liteke, ordea,
bizi-ametsa
urruti batera
saiestu duana?
Itxaso asarretuaren
sabeletik
datorren orrua bezain

bildurgarri
sortu zait
galdera soil baten
eztenkada illezkorra.
Nor naiz ni?
Erauntsi zakarraren
erasoetatik bezela
igeska nabil
galdera
bildurgarri ortatik.

Gizagajoa 11 !
Nora iges nezaket
neronengandik?
"NI"
eziñ
"NI"-gandik
Itzuri!!
Orbelaren gisa
lasaitasunezko
zorion antzuan
bizi nintekeana,
ler-zorian dagoan
udaberriko
kimu-ninia bezela
erdi-mindua nago
bizi-arnasera.
Galdera egiña dut.
Bizi naiz, beraz.
Nun ote, ordea,
arri-pitxien balioz
berdindu
ezin diteken
erantzun ezkutu ori?
Gau illunak ere
bere poza ba du
egunsentiaren
itxaropena
galtzen ez duan
bitartean.

TXOMIN PEILLEN KARRIKABURU

Paris'en jaio zan 1932-XI-17' an. Zuberotarra jatorriz. Biziztian lizenziatua, Paris'eko Ikastetxe nagusitik. Irakasle. Euskaltzain urgazle. "Gernika"-n, "Euzko-Gogoa"-n, "Jakin"-en, "Egan"-nen, "Oleri"-n, "Ige1a"-n eta abar idatzi dau. Bereak ditu euskal liburu biok: *Gauaz ibiltzen dana* (1967) ta *Gatu beltza* (1973). "Txomin Agirre" nobela saria jaso eban 1964 ta 1966'an. "Ige1a" aldizkaria, berak sortu ta zuzendu euskun.

Gaur Lorea

Gaur Lorea jin nitzaiian
lotaran ikustera;
betezpalez gorde drautan
hire begi distira.

Otoi parka nere maite
iratzartu hindudan.
Lo hindagon eta hire
gal beldurra bai'neukan.

Iratzarri ba'haidanez,
ez lokartu berala,
lo goxoen gaiñetatik
jautsi hakit Izarra.

Argiaren zubietik
goazen Gazteen-Herri-ra,
hire begien argiak
gida gisa ba dira.

Belar-urik ez du behar
amoriotan jartzeko,
neri aski zitzaizkidan
begi bi xoratzeko.

Begietan urhe berde
amodio kolore,
argi hori lagun ez da
gauik neholaz ere.

Gaur lotara jin nitzaiän
Lorea ikustera,
betezpalez gorde drautan
hire begi distira.

JESUS GAZTAÑAGA

Asteasu'n jaio zan 1932-XII-2'an. Gazteiz'en eta Donostia'n osotu ebazan bere apaiz-ikasketak. Errexil'go txauburu gaur. "Euzko-Gogoa"-n, "Jakín"-en, "Olerti"-n, "Zeruko Argia"-n, "Laiaketan"en, "Goiz-Argi"-n eta abar idatzi dau. Olerkari. 1976-VII-25'an Azpeiti'ko Udal-letxeak Karmelo Etxegarai'ren omenez eratutako olerki-sariketan beronek jaso eban lenengo saria.

Musika

Musika... Jo ta jo tan-tin-tan pianoa...
Aurrea illun... zeru-izar antzekoa
nun nai: bide, baserri, ta bertako zelai...
Pianoa xamurki tin-tanean alai.

Eguberri-abestiak datozkit burura...
Goxo ta eder aztuz, maiz naute lillura.
Entzumen-uts, entzuten neukaten arduraz:
Barnera bil, naizen au, ta biotz-ikaraz,
lerte-zurren bakoitzez. Ardo goxo moskor
lez nigan, zoratzen naun pil-pil kilimakor.

Abestiok, Gauonez soillik, aal entzun...
Tamala! Zertan Jainko'k musikari enindun...?
Barnez, kilima-gose...; zoramen egarri,
entzumenez... Abesti-eske nago larri.
Nai ainbat aldiz... naira... beti entzuteko...
Musika nik nerekin —zeru!— ibiltzeko...
Jainko, etzenidan, ba, jar abesle-eztarri...!
Zertan, Musika-Iturri, ez ni musikari...?

MIXEL ITZAINA

Aldude'n jaio zan 1933 II 19'an. Ustaritze'n eta Baiona'n ikasi zituan batxillerra ta gaiñerakoak, Kanbo'ko udaletxeko idazkaria da aspaldidanik. Euskaltzaindikoa. "Gure Herria"-n eta "Herria"-n idatzi dau, "Errola" ta "Baxenabartarra" izenordeak be erabillirik, itz lauz eta bertsoz.

Argi urratzean hegoa usoekin

Gau izartsuan, Aize Hegoa, ilargi filus lankide,
hor arizan da, maltzur maltzurra, ant-erki triste egile.
Sorgin zaharra, hedoiak sudur, dauzkala lanoak ile,
goiz hau eskutan, orai hor dabil, orraze urrez ireslel

Teatroaren oial haundia bildu aintzin iguzkiak,
berak dazkien selauetarik ekarriz beztimendiak,
harrigarriki apaintzen ditu zerua eta mendiak,
lurretik urrun ereman gitzan hasiko den antzerkiak 1

Eki aldean ezarri ditu odolezko harrasiak,
mendebalago gorderik zauzkan kobreri zahar guziak.
Han hemen orain, gris hauts dentela, iguzki hariz josiak,
hunkiz ham balus! Bai aingeruek parabisutik jautsiak!

Hego Nahasik dakartzka ere goitiar zinta urdinak, kolorez
arin ero ilunak, bainan bida ez berdinak, mila bat aldiz
elgarri josi, mila aldiz deseginak!
Eta hilak izanen baitira, dolu mantalin beltz finak.

Munduak duen teatorrikan zaharrenean baigira
bi lehoin haundi, tzar etzanikan, Artzamendi ta Baigura,
gorrail beltzean, musker ilunez beztiturikan hor dira,
majestaterik maltzurrenean martir gaixoen begira.

Sorgin xaharrak eliz-barneak zerurat ditu hustuak
hau eman ditu izaitearen lehenbiziko mustruak,
lurra oraino sutan zelarik, entsegu gisa sortuak,
zarabandaka ipar alderat doazi bila justuak!

Orai hegoak bota dezake oianetako orroa,
zeru gainean nunbait galtzen den irri karkaila zoroa,
ipar aldean agertu baita lehen usoen lerroa,
hegal argian dakarratela antzerkiaren geroal

Nungo jauregi Kristalezkotik zirezte hegaldatuak?
Nun dira zeru zuek ikusi guretzat debekatuak?
Aize hegoak zilarrez jauntzi inozent kondenatuak,
gure haur aments urrestatuen mezulari sakratuak.

Biharamunaz grñatu gabe bide luzean joailek
zuek zirezte Jesusek berak eman modela pobreak.
Eta gu berriz zuen hiltzerat abian bihotz gabeak,
barkamendua emanen dia Jaungoiko zuen jabeak?

Diamantezko perlen dirdira, larrazken oroz berria,
iratzar-azu oraino luzaz gure aments egarria!
Betikotz gazte, lorios dagon Jainko Jaunaren begia,
Parabisuko esperantzaren hegal ukaldi argia :

Bainan zendako, libertatea, oi zuri hegalak hautsi?
Zendako beti ahulendako, ekaitz, galerna, erauntsi?
Zonbat inozent odol husturik behar ote da ikusi
Aita Jainkoa jarri artean satan beltzari nagusi?

MIKEL ZARATE LEJARRAGA

Lezama'n jaio zan 1933III6'an. Apaiza, Derio'ko ikastetxean. "Karmel"-en eta "Anaitasuna"-n idatzi izan dau. Euskaraz argitaratu dituan liburu batzuk: "Gure meza deuna" (Bilbao, 1959); "Gure salbaziño-Egintza" (Bilbao, 1967); "Meza liburu txikia" (Bilbao, 1968); "Bizkaiko euskal idazleak" (Bilbao, 1970); "Haurgintza mine-tan" (Bilbao, 1972); "Euskal Deklinabidea" (Bilbao, 1975); "Ipuin antzeko alegi mingotsak" (Bilbao, 1975); "Euskal Literatura" (1977) ta II (1978), eta "Bizipenen Bultzadaz" (1978), olerkiak.

Iratzarri nahi nuke

Uda bihotzeko eguzki hero,
zemento grisezko bloke zapalkor,
gas pozoitsuaren ke laino mozkor,
sorgin haizearen hauts dantza ero,

motor durrunda... ta, zu, egunero
infernu gris hortan, egunero hor

arima gridun lur pusketa lehor,
zure jaunen robot, baloi, numero...

Iratzarri nahi nuke barnean
lotan daramazun gizon poeta,
gizon aintzindari eta profeta,

izangokoaren ezerezean
zuregan dagoen gizon euskaldun,
iratzarri zeu ta zeure zeutasun.

GABRIEL ARESTI

Bilbao'n sortua 1933-X-14'an. Olerkari ta antzerkigille. "Euzko-Gogoa", "Egan", "Euskera", "Olerti", "Zeruko Argia" ta olako aldizkarietan idatzi eban; bereak ditu: *Maldan behera* (1960), *Harri eta Herri* (1964), *Harrizko Herri hau* (1970), ta abar; "Loramendi", "Orixe" ta "Lizardi-sariak jaso zituan. Antzerkian: *Mugaldeko herrian eginikako tobera*, *Etxe aberatseko seme galdua...*, *Justizia txistulari*, *Mundu-munduan* abar.

Ipar aizea

Ipar aizea, aize gogorra,
etorten zara gugana,
nola kodaña, zeken doillorra,
lukurreria batena.

Etorten zara
biotz gabe;
guk etzaitugu
ezer maite.

Gariak moztu dituzunean
bidegabeko ortzekin,
asarre biziz gure barnean
ikarak digu irakin.

Etorten zara
biotz gabe;
guk etzaitugu
ezer maite.

Amalaudun

Gau-a guztien'zpiritua zara;
lore guztiak arnotu ex ta nahas:
hotzerri-belarra, otea, akara.
Zure urrin hortaz horditu naiz arras.

Gauzen tolesketa gaitza bezala,
behin harroa, hurragoa apala.
Euritan triste, haizetan barreka:
ur oliatuaz egin erreka.

Gau't'egun; ilargia, eguzkia;
batan-samurra eta edaskia.
Zeu zara ardi kumeduna'ta antzua.

Zure ezagutza etorri zait garaiz:
astiro, argiro konturatu naiz
batez zarela zimaurrea, gantzua.

JUAN ANJEL ETXEBARRIA

Santurtze'n jaio zan 1934-XI-7'an. Euskaltzaindikoa.
"Karmel", "Olerti", "Zeruko Argia", "Jesus'en Biotzaren

Deya", "Agur" eta abarren idatzi dau, "Dirauket" izenordez sarri. Bereak ditu: *Gurutz bidea, Maitale galdua, Lo ta amets, Basoko loreak, Esopo'ren Alegiak, Phedro'ren Alegiak, Españi'ko Olerkariak, Prantzi'ko Olerkariak, Katalunya'ko Olerkariak, Andersen'en Ipuinak, Laiño-odoletan* eta abar.

Piñudia laiñotan

Eguna laiño artean
agiri yaku goizetik.
Mendi-zelaiak otz-illun,
gizadia astitsu-ixillik.

Arratsaldean epeldu
da giroa inguruetan.
Laiñoa lurretik jaso
ta kokatzen adarretan.

Neure lurra alantxe laiñoz
estali nuen antxiña.
Oroi gozoak berotuz,
oi gozoaren samiña!

ta ba-dijoa goruntza
laiño-moltsoa geldika.
Alan be, gogo-ertzetan
samin bat dut dingilizka!

Iretargi betea
zeruko zabaldean,
bakartasun-pakea
ene gogoan.

Ortzean izarrik ez,
laiño-maindre otza
bere ikutu leunez
aren gain datza.

Oroitzapen-lurruna
nere izar bakarra,
Aberri-maitasuna,
biltzen, goiztarra.

Illargi nagusia
zeruan lainoz dabil.
Barnez dut Aberria,
ta itun bat zintzil.

JEAN ERDOZAINZI-ETXART

Ibarla'n (BN) jaio zan 1 VII 15'an. Aita prantzisko-
tarra. Briye'n, Beziers'en, Paube'n eta Paris'en osotu
zituen bere eliz-ikasteak. "Euzko-Gogoa", "Herria", "El-
gar", "Gazte", "Gure Herria", "Olerti", "Egan", "Jakin"
eta olakoetan idatzi dau; neurtitez geienetan. "Manex",
"M. Ibaralde" ta "P. Ostogia" erabili ditu lanak izenpe-
ratzean.

Iraun baleza...

1. Haizea zen eta... zuahitz adarrak intzirika!
Haizea zen eta... ganerrean saguak dantzan!

Gotorra da gotorra ene etxea bere zimenduetan,
berrehun urtez ba du zonbait zafraldi senditurik
bere gorputz zabalean, galerna kexuetan:
ene etxeak, gogor, gaur ere ihardokiren du!

2. Gaua zen eta... zoin goxo supazter xokoan!
Gaua zen eta... zoin argi su-lamaren irria!

Bero da hero ene etxe-barneko eremuetan,
arbasoen itzala hor gaindi dabila, erne,
bizi direnen artean, sekulako orroitzapenean:
ene egoitzan, zurrungan, gaur ere lo egingen dugu!

3. Lo egingen eta... aments gaixtoak haizeak heziko!
Lo egingen eta... bihar goizean jeikiko iruzkia bihotzean!

Arin da arin ene gogoa bere pausuan
mendiko xenderetan han-harat neramala
artaldearen urratsean, erreketan gora:
bazka gizenetan, deskantsuan, oraino alatuko gaituk!

4. Deskantsuan eta... zoin goxo supazter xokoan!
Deskantsuan eta... zoin argi su-lamaren irrial

Luzaz iraun baleza gau hunen bakeak
goi-ameslari ibil nadien, ixtant bat bederen,
ene mundu gordearen eremuetan barna:
bihar, indarrak berriturik, azkar abiatuko gaituk!

Bainan...

Iraun baleza!

DANIEL BAZTARRIKA

Azkoiti'n jaio zan 1935-XII-9'an. Aita josulaguna. Xabier'en, Veruela'n, Lciola'n eta Ona'n osotu ebazan bere eliz-ikasteak. Ondoren, Zaragoza'n ikasi zituan Jakintza eta Edestia, biotan lizenziaturik. Bilbao'n daukagu gaur. Bilbao'ko "Jesus'en Biotzaren Deya"-n, "Olerti"-n, "Jakin"-en eta abar idatzi dau, iñoiz "Androtegi" ezizena erabilliaz.

Iragarkundea

I. Itaaropena: *Egun senti abestia.*

(Sorotik maite abesti bat. Lur busti usaia nabaitzen da. Ortzia, kristal bat bezin gardena dago... Ondoko musika: Aita Donosti'ren *Oyanean.*)

Egun senti urdi ia... Egun senti argia...

—Zoazte emendikan, aragikeriokll

Ezkutatzen ari da goizeko izarra...

—Zaudete, bai, geldikan, larrosa txuriok!

Aize garden preskuak, musika dirudi...

—Zuek ere isilikan, txori txiolariok!

.....

Egunaren ederra, ezin geldi bakar...

Gaurko egun garbi onek, zerbait ote dakar?

II. Biotz griña: *Eguerdiko garra.*

(Beroa. Bero aundia. Urrutira, txitxarra ots triritia. Leioko itzalean arraitzezko gantxilla... Ondoko musika: Bach'en *re txikiko tokata ta igesa.*)

Eguzki argi, indartsu, gaurko eguzkia...

—"Basauntzak uren antzo naiz ni Zure egarri..."

Lurra berotasunaz ler zorion dago...

"Sarri agindu dezun Mesias ekarri..."

Egunaren driz-driza balk-bat da geldi...

"Maitasun garrez, *Jauna*, ni Zuri ezarri..."

.....

Eguardiko lamara ezin iliork kendu...

Maitasun su beroa, nola desegindu?

III. Gertaera: *Illun abarreko pakea.*

Otoi lekuan, lili usaia. Kanpoan, txori txioak, ume irriak, nekazari kantak. Ortzi ertzean kolore danak batu dira: oria ta urdiña, gorria ta ubela... Ondoko musika: Aita Otaño'ren *Agur Maria.*)

Illun abar epela, arratsalde argia...

—"Graziz betea zeran, agur Andre Mari..."

Argi ta musikazko ler aundia izan da...

—"Sortzea damaikezu egin zindunari..."

Zerua aingeru egoz, lurra argiz bete da...

—"Amatasun neskutsa dezu zure sari..."

.....

Illuna berjetxi da. Illun atsegiña! †
Mari geldi baitzaigu Ama ta Birjiña.

ENAUT ETXAMENDI

Garazi'ko Ezterenzubi'n sortua, 1935-VIII-22'an. Tolosa'ko Ikastetxe nagusian ikasi zituan injinieru-karrera ta politika zientziak. Euskatzain laguntzaille. "Herria"-n eta "Enbata"-n idatzi dau. Kanta-egille ezaguna dogu.

Garaztarra nizala

Errepika

Garaztarra nizala diozut nik ere
Garazin sortu nintzan han nahi gerore
mendi oihanez zauzkit oi! begiak bete

Garazin gaindi, Baigorri gaindi ibil nindaiteke
Garazin gaindi, Baigorri gaindi banintz orai ere.

I

Hurrungo leihor batian, gizon bat itsas hegian,
bi begiak ortzaizian, galdurik zen ametsian.
Eskualduna zelakoan, agur egin nionian,
altxaturikan burua gora gora erran zaitan:

II

"Johaki dituk urtiak, nik utzirikan Herria,
bahaki zein dolu dutan oi ene bihotza aria!
Garazitik johan nintzan segurki itzultzekotan,
untziak dohazkellarik orai nago leihorretan..."

III

"Harat berriz itzultzekotz zerbaitekin behar eta,
nik penak bakarrik bildu, nik bizia galdu duta."
Bere penaren kentzeko Garaziz mintzo nintzaion,
hego zero bat bezala begia piztu zitzaion.

IV

Hik Eskual-Herri maitiak, igortzen haitan xoriak,
egin ditak bozkaria, bai bihar gohazin biak!"
Aiher ditiat ikusi berriz Garazin mendiak
bai eta pentze berdiak eta herrialde xuriak.

V

Iristen diren eskualduner lurraren lau eskualdetan,
kantu hau hel bekiote izarren hasperenetan.
Garaziko mendietan kantatzen duten berala
errepika hau kantatuz oro botzik dagotzila.

XABIER AZURMENDI

Zegama'n jaioa, 1935-II-21'an. Beroni emon eutsoen, 1970'garren urtean, "Agora" saria. Itz lauz ta bertsoz, olerki sail ederra da. 1973'garren urtean be, Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxak, urteetan lez, Irun'go Udal-etxeakin batera olerki sariketa, "Jose Artetxe" saria antolatu eban, X. Azurmendi'k bere "Maiteño" poesi-sortakin eskuratu eban bigaren saria.

Nork utzia

Nork utzia du lillura nadin
edur gainean urratsa?
Jaio ezkeru sentitu detan
Jainkoa'ren esperantza,
Egoi aizeak jolas azita
dena biur dit lokatza.
Bideak arras señaile gabe
or doaz akabatzero.
Egun sentiko intza goizean,
itzali oi dan antzero.
Beti antsizka, beti kezkatan,
nere Maitea nun zera?
Gaueko loak iges egin dit,
ezin inola deskantsa.
Nere Maitea aize gainetik
txistuka alboan pasa.
Suzko antsiak kiskali naute,
minez galdu zait arnasa.

Loreak bere usaia maite,
maiteak maite maitea.
Maiteño orrek konpreni zazu
min astun onen nekea.

Agoniatik eskatzen dizut
arren esnatu zaitea.
Edur txuritan pauso marka bat
nere Maiteak utzia,
arrasto ori miazkatutzen
damakit bizitz guzia.
Naiz edur markak erabat galdu
laztanduko det maitea.
Aztu ta geldi nintzan,
arpegia maitean gain utzita.
Aztuta geldi nintzan
kezka eta arretak
Lili usaietan utzi nitunean.

INAKI ZUBIZARRETA AGIRRE

Olerkari bezela, 1974'an, Gipuzko Aurrezki Kutxak eta Irun'go Udaletxeak urtero eratzen duten "Irun Uria" literatur sarietan len-saria beronek eskuratu eban. Bere olerki liburua: *Heriotzaren eta bizitzaren mugetako ene hitzak* (Barzelona, 1975).

Ez dut inoiz

Ez dut inoiz
biziaren argirak ezagutu.
Heriotzaren itzalak
markatu ninduen
mundura azaldu-orduko.
Eta orain
hemen nabil
munduan zehar,
heriotzaz eta bizitzaz

galdezka,
erantzunik gabeko
galderetan...

Ez dut inoiz
biziaren argirik ezagutu.
Heriotzaren itzalak
markatu ninduen
mundura azaldu-orduko
Argi bila nabil
munduan zehar,
bainan,
heriotzak itzaltzen dizkit
arratseko
argi-izpi txikitxoak.

JOSEBA INTXAUSTI

Segura'n jaio zan 1936-VII-20'an. Prantziskotar. Euskaltzain-Aranzazu"-n, "Jakin"-en eta "Egan"-en idatzi dau batez be. Bereak *Euskal-A ditza* (1960) ta *Las siete Lecciones de Euskal-A ditza* (1965). Liburu txorta zuzentzen dau. 1965'an, Konpostela'n euskal Unibersitate olerki-sariketan len-saria eskuratu eban.

Bakarrik

Bakarrik.
Egunsentiak
bakarrik
argitu,
argitu nau gela bakarrean.
Argi ta gerizpetan bakardadea baitut ohantze.

1) **Metroan**

"Metro"-rako ba ginen hogei,
ehun, berrehun...;
guziokin
sartu naiz barnera,
batera,
bakarrik:
ausaz ez ninduten bidelagun...

Berriz ere bakardadea zen,
zijoen,
nerekin presente.

Ba dire gizon eta andere,
gazte-algara
ta esku-emate.
Ikusi naute
ta ikusmiratu,
ta, lehen bezela,
bakardadea!
Bakardade-lurpel
Ez bainaiz gizarteko semel

Begiratu dut:
ez dut begirik idoro,
igesi nigandik oro,
ta nereak —gajoak!-
guzienganaino, bilaka,
zoro.

Inguruan,
trinko,
giza-sorbalda hesi,
ta, harrigarril,
neretzat ez zuen
nehork
belarri,
ez aurpegi.
Ez bainintzen gizartean seme.

2) **Tranbian**

Tranbiak, gure huritik,
gizadiz, eder eta opare 1,
hantxe baikera, orpoz-orpo,
elkarren burrukari ta burkide,
bizitza hertsian,
arerio ta adiskide.
...gaur, ordea, ba zuen aulkirik,
ta, hain zuzen, ondoan bat hutsik.

Ez alferrik!
Bainan
gaur,
hemen,
bihar
eta betiko
aulkia
beti hutsik.
Eta
ni,
amai
gabe,
behingoz
nere buruaren errotari.

Gizartean ez naute seme.
Guziak zuten mintza-lagunik,
zenbaitek maitalerik.
...orok begiratu didate,
kupitu,
ta isilpean mintza zaizkit:
—"Gazte,
gizarajo
ta fraide!"

Ni,
jaistean,
bakarrik.

JOSE AGUSTIN ORBEGOZO

Goiatz'en jaio zan 1937-II-1' an. P asiotarra. Urretxu'n eta aliz-karrera asi ta egiñik, Erroma'ko "Angelicum" ikastetxean lortu Teologi-irakaslaritza eta "Biblicum" deritzzonean Idazti Deunetakoa. "Laiaketari ", "Olerti", "Jakin", "Redencibn" eta "Goiz-Argi"-n idatzi au. Idazle txukun, sakona. J. M. Escriva jaunaren *Camino* —Bidea-itzuli eban euskerara, 1964'an.

"Miles Christi"

(Amundarañ dar Aita Serafm'en Apaizgoaren Zillarezko Eztaietan)

Pakea
zeruko baratzetan erne zan
betiraundean,
Aita Betikoaren
itzalean...
Zeruak jaulki zun Pake-azia
Atsegin-baratzara.
Aita Betikoak
Adan eta Eba'ren
biotzetara...

Ekaitzak eraso zion...
eta pekatuaren
atzapar zitalak
txirbil txirbil egiña utzi zuten
pake-landara.

Atsegin-baratza
pakearen seaska...

kabi...
 illobi!
Gudaren iturri!
Pakearen illobi!

Irten zan Adan
obenaren zigorrez
Atsegin-baratzatik...
Ez ordea
pakea
tamalez...
"Adan, aurrerakoan
jan zure izarditik!"

Zerua: betillun, zakar...
Mundua: sasi, sastraka,
uztao ta belar txar,
ote,

 arantz,
 lar... !
Pizti ta sugetzar...!
illobi kondar!
Giza-biotza
obenaren erpetzar
madarikatueta
itotzear...
Obenaren ondare:
izardi,
 neke,
 ezbear!

Ostiral Santu...
Golgota gaillur...
anima-soroetan.
Alkar-maitasuna
laterrietan.
Zorionaren pakea
mundu-bazterretan...

Gudari zera
Kristo'n antzera.
Pakelari
Golgota'n kidera.

Burrukaren mandatari!!
Pakearen gudaril
Gudari eldua...
Ogeta bost urte sendo
burrukari emanak...
Ogeta bost urte
birrindu ta erein,
erein ta txirbildu,
gudaritzari emanak...

Eldu zera
gaillurrera.
Ez duzu beingotxoan
makurtu bururik
etsaiaren aurrean.
atzera gorde sekula
bildurraren babesean.
Ez dezu aldegin
arriskuetatik...
Ez da kikiltasunik
zurean...
Zure buru zuria
Ernio mendiko arkaitz
sendo, bulluzia deritzait.
Elur ta izotz,
kazkabar ta txingor,
Illunabar...

Iltze gogor!
Odol gorri!
Gurutze lakar!
Kristo'ren azken arnas!
Pake berriaren baratz!

Gurutzearen babesak
eman zitun
Pakelariak:
"Atzo Ikasleak,
gaur Apaiz guziak".
Gudari da Apaiza,
baiña, pakezale!
Pakezale ta burrukalari.
"Ez naiz pakearen aldeko,
—zion Jesus'ek—;
gudaren mandatari".
Eta inpernu osoarekin
burrukatu ondoren,
otsegin zion Aitari:
"Bukatu det guzia".

Gudari da Apaiza
Kristo'ren antzera;
gerra-zantzu, mandatari
Aren legera.
Edo-ta zuzenago
pakearen gudari!
"Miles Christi",
deitu diote.
"Miles Pacis",
bear genioke...
Gudari!
Pakelari!

Gudari! !
Inpernua oinperatu,
mundu ta aragiaren lokarriak
txirbildu,
deabru gaizkiña
katiatu.
Gudari!!

Obena birrindu,
gaiztakeria zapaldu,
modakeria ankapetu,

gorrotoa...
astindu.

Pakelari!

Jaunaren adixkidetasuna
ta Jainkoaren eskerra
erein

 pakatuak legortutako
aize ta erauntsi,
arri ta zigor...
eraso ta ekaitz,
trumoi ta tximist...
dana jasandakoa.

Eldu zera
gaillurrera
gudari leial,
zintzo,
jator,
trebe,
sukor,
oldartsuaren antzera...

Eldu zera
ta ba-zoaz
oraindik aurrera.
Itxoin, arren,
Aita biotzbera,
atzetik gatozen
gudari berriei.
Or goaz zure babesera
gudaketa ikastera...
Goazen batera I

Agur t'erdi,
Kristo'n gudari!
Agur t'erdi,
pakearen mandatari!
Agur t'erdi,
Ap aiz-Gudari !

EUSEBIO IGARTZA

Osintxu (Bergara)'n jaio zan 1937-IV-11' an. Lazkau'ko beneditarren artean egin zituan bere ikasketak. Bertsoz eta itz lauz jarduna dogu euskal elertian. Itz neurtuz batez be, lan naikoa azaldu neutsozan nik "Olerti"-n. Alegi-sail aundia dauka idatzita.

Ola-gizonen bizikleta

Ola ertzeko bizikleta
erdoi zomorroak
koska dagik,
bainan zer?
Ala ere maite aut, maita.

Zarraren zarrez ibilli ezin...
kurpil pauso bat,
negar antsi
biren ama...
abesten, langille neke, min.

Urteetan, ire gain zaldun,
darabilek
ola-gizona.
Bero, euri
ta otzalditan, biok lagun.

Goizero dakark langillea
lo exkax,
bart arratseko nekea
apur bat arin,
noiz txistu, noiz kezka betea.

Gauak, artzulo beltz irudi,
itxutzen gaitunean,
ire begi bakarrak
bide izar-
nagusiari etxerantz argi.

Ola-gizonan semetxoak
jaietan dituk alaitzen;
aitaren aurrean,
burni bizkarrean,
naiz min atzean-
txirriña joz, alai gaixoak!

Baztartua ikusirikan,
berebilletan
dabiltzanak,
parra dagitek,
arro-aizeak puzturikan.

Baiñan nik, par ordez, goralpen,
ire bitartez bai dik
sendi beartsuak,
izardiak goza dun
ogia, jan aal izaten.

Ik bai eginkizun bikaiña!
ta ala ere
erdoi zomorroak
—burni biotz—, koska...
ori duk lanaren ordaiña!

Baiñan nik, guk, onesten augu.
Gerotasunak,
ire zartasunaren
aunditasuna
aitor ta ulertuko balu...!

Ola ertzeko bizikleta!
ez izan erdoi ajolik.
Zarraren zarrez
amaia badatorkit,
biziko beintzat ire kantal

ANTONIO BILBAO

Morga ondoko Ganbe'n jaio zan, 1937-III-22'an.
Olerki-barrutian, "Lizardi" saria birritan jaso eban. Bero-
nek Ondarru'n, 1964'an, Agirre'ren omenez ospatu zan
Lore-Jokuetakoa be. Oraintsu, 1975'an, atera dausku
Pentsakizunak, 114 ota 571 pentskizun dituan liburua.
Euskaltzaindikoa.

Zein politak

Zein politak
diran
neska baten
hamazazpi urteak!

Ondino
ez dakiz
berak
bizitzak
dituen
nekeak.

Ondino
ez dakiz
berak
bizitzaren

nahasteak.
Gogoan
ditu
loreak.
Gogoan
ditu
igandeak.

Gogoan
ditu
dantzak.

Zein politak
diren
neska baten
hamazazpi urteak!

MIKEL LASA

1938-IX-1'an, Donostia'n jaio zan arren, Getari'n emon eban gaztaroa. Jakintza ikasi eban Salamanka'n, eta gero Ziekonomikak. Euskaltzain urgazlea. "Egan"-nen, "Zerako Argia"-n eta azaldu dauz bere lanak, itz lauz eta bertsoz. Berea dau: *Novela berria Hego Amerikan* (1972).

Bien artean

Gabaren erdian entzungo duzu bere abotsa
ezin-egonik, larritasun bizitan
ixiltasuneruntz bultzaka garbitu-beharrak,
oiñazean, eriotzean eta tristura betean
desesperantza gainezka
utsunera erori-zorian

maite gaituan begiaren
babesaren beharrean
engainamenduaren festa-buru gauean
algararen txorabioan.

Baiña egungo ta biarko egunaren artean
bitarte izugarriak ezarriko ditut
eta goiz-alba soillean izanen naiz.

Zentzuzko gauzetaruntz
abiatuko zera zuzenian.

Ederrena izanen zera, garbiena, egokiena,
zeure neurri justuan.

JOSE ANTONIO ARTZE

Usurbil'en jaio zan 1939-IV-6'an. "Ez dok amairu"
taldekoa; "txalaparta" berbiztu dauana. "Harzabal" ize-
nez geien bat. Iru poema liburu argitaratu dauz: *Isturitze-
tik Tolosan barru* (1969) eta *Laino guzien azpitik... ta...
sasi guzien gainetik...* (1973), eta *Ikilimikiliklik*.

Oil Donostia

Oil Donostia
Donostiaren ederra
Donostiaren xarma eta goxoa;
ez da zu bezalakorik
Astigarraga guztian

begi haundiak, sudur luzea
Turgull, Igeldo eta Santaklara;

Ondarreta eta Kontxaren
ahoaren zabala I
denen beharra duzu
lehengoek egina
ari zaren bezala
irentsiko baduzu

zuri beha
ahoa, zabal, xoraturik nengoela
zaztl auto bat sartu zitzaitan
urdaillerraino.
ari garai bateko eulien leguna

Amara eta Egia,
egia nere begiak ez dutela
zuek ikustean
uzkerrak botatzen besterik jakin

bai, seirehun ziren
seirehun milloi gutxienea
telefonoen ordainak;
telefonoak eta ordainak
Donostiarren ardura
eskuak zikundu gabe
oro arrotzak eramanak

harrotu ez zen
harrotu zitakean
Donostiarren haserrea baretzeko
seitatik bat
ehun milloi
MiriMari
MiriMari herriarentzat!
jauregiz inguratua

merke omen, MiriMari;
lehen erregalatutakoa
orain hainbat milloitan erostea

zera izatea da nunbait
Donostiaren bokazioa;
hala dute behintzat
argi eta garbi
begitartea asko gorritu gabe
egunkarietan esana.
esana eta egina,
Kursaal teatroa kendu
eta lujoko ostatua eraiki.

zera bitxia!
Donostia.
berataz baliatu eta
gainetik ohea pagatu.

hala ere
Donostiako zeruan
ez da euli bat agertu!

LUIS MARI MUJICA

Lizartza'n jaioa, 1939-X-10' an. Euskaltzaindikoa. "O-lerti", "Jakin" eta "Zeruko Argia"-n idatzi dau. ditu iru koplak-liburuok: *Bide-giroak* (1963), *Urdin eta Burnt* (1965), *Hitzak ebakitzen* (1975). Neruda'ren eskolakoa ei dogu.

Harrizko euskara

Nik koplak garbietan
kanta nahi dut,
nik trebarik gabeko

neurri libretan
bertsoa nahi dut.
Egia esateko,
herriaren aide gezurra
kolpatzeko,
prejuiziorik ez dut.
Dena herriaren ahoz
—euskara klaroz-
adierazi nahi dut;
nire koplak erraza da,
aims, librea.
Lehenengo poesiak, Euskal Herria,
baserrian lurrina,
zelai ta soroen usaina,
gurdien asperra.
Gaurko poesiak, ordea,
burdinezko aurpegia
—altzairuzkoa-
nola hala, asfaltuaren harritan
mailukatzen den poesia.
Teknikaren aitzakian
eskulpitzen ditugu
beste poema bortitzak,
beraz, Euskal Herria,
jadanik ez zara Arkadia,
utzi dituzu Virgiliren Bukolikak,
utzi behi ta artzainen intziriak,
gaur harrian, altzairuan,
burdinean diharduzu,
poema metalikoak
eskulpitzen dituzu.
Bedi nire euskara
katerik gabea,
bortitz, beltz,
libre a !

FERMIN IRALAGOITIA MENDIBE

Etxebarria'n jaio zan 1940-IV-18'an. Aita Pasiotarra. Eleiz ikastaro-ostean, 1964-VIII-2'an apaiztua izan zan. Ikasle zala, olerki asko ondu zituen, azaltzen zan "Laiaketan" batez ere argitara emanik. Iru ingurrazti daukaz eta, laster argitaratzeko asmuz. Bereak ditu gaiñera: "Eskola-aurreko eziketa", (8 ale), ta abar.

Joan bear dogu...

Urrutira...

Naizta ekaitzak oker bultzatu,
naizta itxasoa bitsez arrotu,
naizta aurrean dana gogortu,
asarre biziz, doillor, indartsu...
Joan bear dogu...

Nora? —Urrutira.

Gozamenezko jardun lekura.
Euskal egarriz, sugar, aurrera.
Barren oiukadaz urrutira...
Euskal ixurketa zelaira.
Ama!, zeugana: zeure altzora.
Ama!, zeugana: itxas ondora.
Ama!, zeugana: euskal zerura.

Gaixo negarrak urtu gurez,
gose-egarriak ase-eziñez.

Boga! boga! Urrutira...
Moltzo gaziak orrazturik,
itxas tontorrek gaindurik,
batel-azurra bitsez leundurik...
Joan bear dogu... urrutira.

Kanta-kantari, oi u alaiz,
Aitor Aitaren argiz...
Ez egidazu itaundu: nora?
—Euskal girora, euskal larrera.

Ez dautzut emongo agurrik,
Euskalerra txokoa.
Ez dautzut emongo agur-laztanik,
euskal itxas ondoa.
Zugaitik nago bizirik,
zeugana noa.

Joan bear dogu... Urrutira.
Joan bear dogu... Euskalerrira.

JOSE AZURMENDI

Zegama'n jaio zan 1941-III-19'an. Prantziskotar.
Arantzazu'n egin zituan eliz-karrera-gaiak, Filosofi ta
Psikologi-gaiak Alemanian'n osoturik, Arantzazu'n egoala
"Jakin" aldizkaria zuzendu eban. "Olerti"-n eta "Zeruko
Argia"-an idatzi dau naikoa. Euskaltzaindikoa. Bereak
ditu: *Iraultza sobietarra eta literatura* eta *Hitz berdeak*
(1971), olerki liburua. Olerkari sozial tankerekoa.

Barne-oivak

1) **Biar**

Eta urak, ur berdeak itxasoa bezala,
eta urak, ur aundiak itxasoa bezala,
urak itxasoa bezala

bete-beteko du askatasunak oparo
euskal lurraldea.

2) Esaidazute

Zer den galdetzen dut lana,
zer den justizia, esperantza,
maitasuna. Zer diren gizonak.

Zer den aide argia, zer den
ogia, lur landu biguna,
aurren eriotza, esaidazute zer den.

Galdetzen dizuet guztioi
zer den pobreen kulpa
inoiz inork barkatu nai ez duena.

Belaunbikaturik
dizuet galdetzen guztioi,
arren, esan zaidazutela noiz
argituko duen egun berriaren goiza.

Esaidazutela zer den zerbait,
zer den edozer gauza, esaidazutela.

Gezurrak eta diruak
kutsatu gabeko zerbait zer den.

3) Gabez

Nekatuta nago!
Nekaturik irixten naiz beti gabaren atera
ta zin egiten dut ez sekula geiago
afan alferretan lerregiteko.

Ta goizero argiarekin asten naiz atzera,
berriz billa ez billa, esperantza zoro batez.

Zeiñek aterako lidakean biotzetik
maitasunaren sustrai orpoa!

Zeñek emango. lidakean
presondegi urte batzuen atsedena!
Edo eriotza.

4) Eskuak

Argia debekatu zaigu.

Poza, itxaropena
ta argia debekatu.
Pobreak gera-ta.

Arratsaldeak euri egiten du
euskal mendi saietsetan.
Pobreak gera-ta
ez dago aterperik guretzat,
debekatu zaigu.

Askatasuna debekatu zaigu
kostako aize leunak
alamerako neskatxen illea,
ikurrin moduan,
eskatzen duelarik.

Amar dirade mandamenduak
ta amaika bai
pobrearen naigabeak.

Debekatu zaigu
gizon izatea.

5) Kate

Kate onek lotzen nau,
kate onek nau iltzen,
kate onen gogorrak
nau ederragotzen.

Kate onen erpetan
bizitza bizitzen,

deabruzko fede au
luzaro sofritzen.

Eztarrian kantua
kate zakar onek
dit gabez itotzen.

Katean loturik
bizitzaren gabean
urruntzen Joan ala
Rembradt-en illun-argiz
pintzatzen zaidala
nire zortearen
imajina zitala
itxaso barearen ertzetan.

Kate mingarri onek
nau ederragotzen.
Nau gizon biurtzen.

6) Desterrua bide

Nire ariman desterrura
begi apalez nentorren.
Betidaniko bidea
luzea da,
luzea, bai, eta aldatza
eriotzaraiño.

Itxaso, ibar eta mendi,
naiz gau ilun naiz eguzki,
kalbario gora
nintzaden ibili.

7) Zu baiño ederrago?

Zu baiño oderrago?
Aingeru bat,

Aingeru bat?
Zu baiño ederrago
zeu bakarrik,
triste ta
begira begira,
amodio eske.

8) **Langilleak**

Au diagu
pobrearen jakitea:
lanegin, lanegin,
lanegin eta iltzea.

PAULO IZTUETA

Berastegi'n jaio zan 1941'an. Arratia'ko balladan osotu zituan bere ikaskekak. "Arnas" aldizkari sortu ta zuzendu eban beste ikasle batzukaz. "Oler-Ti"-n eta "Egan"-n idatzi dau. Olerkari bizkor, urdira. Ba-ditu liburu batzuk argitaratuta.

Agurl Ikusi arte

1. **Eriotz-aurre**

Aitarengandik urrun xamar nengoen.
Pakezko apaiz-ikastetxean bizi nintzen.
Biok Euskel-erriko mugak besarkatzen
ginduzen, ni Bizkaia-n, ura Giputzen.
Erio gogaiak irauliz, artega nebillen.
Ni zai ta zai, kezkatu. Azaroak 13 zuen.
Ta urrutizkiña asi zitzaidan mintzatzen:

"Aitak urbil du eriotza, zatoz lenbailen,
erantsi iozu liteken muxurik xamurren".
Il-zorian nedukan, beraz. Bai, ba-nekien.

Abitu naiz. Banator. Ez berealakoan!
Adimena bulko ugariz gaiñezka nedukan,
une berean biotza dardarka, ba-neraman
smlean samintasunik eta anima-txokoan
arantzik, bai, eroian pentsatzerakoan!
Itxaro dut itxaron siñismeneko egitan.
Fedea zemaian poz zenbait orduetan.
Goi-intziria ta nigarra naas-maasian,
aldiz ura, aldiz au, burrukan nebilzkian,
oiera inguratu nintzaion bitarte guzian.

2. Eriotza

Gorputza epel, burua gel, begik itxi-itun.
"Aita on... ezagutzen al nauzu?" entzun
xidari batez, emeki-emeki "bai" erantzun
goxo aditu nion. Bazun ezaguera ordun.
Berak jarraiki: "Gure Jaunak grazidun
aukeratu nau, esker bereziaren zordun
natzaio. Seme, torizkizu graziak, entzun."
Aitaren esanak barru-kanpoz ikaratu nindun.
Senideak an geunden, eguna etorri, gaua jun,
ark malkoak masailen, danok otoitz, ingurun.

Onatx! Sor ta lor begira gengozkion...
Azaroak 15-garren eguna zigun...
Eguerdiz, 1-an, erlojuak dulun...
Kanpantorretik dun-dun-dun-dun.
Orratx! Klix, begik itzali zitzaizkion.

Eriotza! Ez duzu barkapenik, ez!
Sega daukazu zorrotz-zorrotz. Tamalez...7
Atsegiñez...? Norberak ikus. Gerokoaz
iragartzerik balegokigu... Baiño ez!
Eriotza! Munduak birao dagizu, zoritxarrez;
igeska dabilkizu, gaiztakerian murgilduz.

Munduzaleok: utzizazute atsegiñak beingoz.
Eriotza! Atoz, sartu gaitzazu zeruko atez
barru, zintzoak jantziz ikusmen goitarrez.
Eriotza! Zatorkigu zorionez, pakez, une onez.

3. **Eriotz ondoren**

Oi! Gure gizatasuna zeñen sentikor den!
Sarri sentimenduak gaituzte menderatzen,
atbiste txarrak maiz digu bizitza garrazten.
Aldendu zaigu aita, dezagun bular, gaitezen
zoriontsu, eneok, lurperatua zintzoa baizen.

Il da, il. Legortu nigarrak.
Iriki, arren, animako atepak.
Beude ixillik biotz-taupadak.
Jaso goruntz otoitz gartsuak.

Ondorioz: etzait bost axola nor zindezken...
Siñets nazazu, zaitezela txiroen ala aberatsen,
ba-dela Epailari bat bizitz onen ondoren,
jaiotzak eriotza duela zor betidanen...
atzo, gaur eta biar ala dela izanen. Alaxen.

LORENZO ZUGAZAGA

Gamitz'en jaio zan 1943-X-10'an. Eleiz-karrera
Derio'n amaituz 1968-IX-15'an apaiztu zan. Derio'ko
Apaiztegia luzaro samar irakas egin ondoren, gaur Ger-
nika'n daukagu Andra Mari eleizako txauburu.

Iñularrerantz

Zeru ta legor ikusi arren
illuntz meiak ezkutaarik,
goiz zoragarri garden onetan
biotza daukat pozturik.
Eguzki garbi ta argikorrak
bere izpiz txukundurik,
zerua urdin ta legor musker
ipinten dauz aldaturik.

Eguerditan itxas gaizperak
euzkian aurka jarririk,
bere indarrak aunditzen ditu
kalte egitea asmaturik.
Bere olatu, bits zuri eta
lurrun guztia jasorik,
ortzi urdiña orbandu dautso
itxirikan zuriturik.

Ezertariko ardura gabe
igitu dan eguzkiak,
azkena asmatzen asi daneko
atzerantz biurtu begiak.
Ostendu nairik ikuskaturik
berak egiña, odeiak,
barrengo suak uxatu eta
irakiten dautse erraiak.

Itxas zabala, etsai gaiztoa
ikusirikan etzuna,
odol dirdiraka jarriten dau
gezia sartuz sakona.
Odei zurizka errugabeak
—itxasoan ondorena—,
gorrotoz sutu egiten ditu
lerturik bere barrena.

XABIER LETE

Oiartun'en sortua 1944-IV-5'an. Natxillerra ta, ikasiak ditu. "Ez dok amairu" kantari taldekoa. "Zeruko Argia"-n eta "Anaitasuna"-n idatzi dau. ta 1967'eko "Agora" sariak berak jaso zituan. Poema liburu bi ditu: *ik egunera orduen gurpillean* (1968) ta **Bigarren poema liburua** (1974).

Pozaren ateak...

Umezurtz bat besela naiz
bidearen billa abiaturlkan.
Kabia galdu zuen
txoriaren antzo,
beroaren billa
bihotza kolpeka.
Zein goxo laiteken izan etxea :
Laratzean sua
eta lanbroa tantaka
kristaletan.
Eta kanpoan ekaitza
elurra
eta otza,
bide oker bat
nunbait galdurikan.

Hain dagoz itxirik
pozaren ateak...

Ez dakit norena den errua
baiñan ez naiz ibiltari ausart bat.
Hortzak estutzen ditudanean
bakarrik nabaitzen naizu
eta kolpeka ibilli beharrak

bizitzaren gustoa
garrazten dit.
Eta trixte pentsatzen dut,
"askatasun, nere lagun,
zertarako zaitut ba
ez badugu denok arkituko
zuga betetasun?"

Iñoiz egin izandu dut amets,
begiak zabalik,
denok bizi giñala tellape berean,
eta ama batek
giñuzala
hitz goxoz loarazten.
Iñoiz egin izandu dut amets,
bihotza zartaka,
denok eskutik artuta
osotu genuela
iñork autsiko ez duen
gizonaren katea,
topatu genuela bidea,
iñoiz galduko ez den
egitazko fedea.
Hizkuntza berdiñean
giñela mintzo,
eta bazeukala gure bihotzak
kristalaren klarotasun epela.

Nabil, eta nabillelako nago
hain neke,
ikusirikan
denok hail) hurrun,
gauzak hain illun,
begiak hain lauso eta eskuak hain zikin...

Zer hotza egiten duen
illargiaren azpian
Betor egunsenti, arren,
naiteken lasai bizi

anaien
ondoan.
Bitez elurak urtu
mendi tontorrean
loreak leku izan dezaten
lurraren gaiñean.

Orduntxe eskatuko dut
nere sandalien lokarria,
eta naiz
atsedenez
denon bazterrera etorriko.
Eta dire etorriko
bide bakarretan
nekez dabiltzan ibiltariak.

Deitzen zaitut,
Ab erri,
milla abots dardaritsuren
izenean...
Ez gaitzatzu,
arren,
bakar eta trixte,
illun eta neke,
etxerik gabe utzi
bukaerarik
ez luken
nortasun bidean.

JOSE LIZARRALDE ALTONA

Idiazabal'en sortua, 1944 III 8"an. Eleiz-karrera osotu ostean, 1969-n artu eban eban apaiztasuna. Ikasle zebillelarik idatzi zituen bere lenengo olerki lanak "Olerti" aldizkarian datoz, 1966'garren urtean batez ere.

Udazken

Ba-nator baratzetik.
Bideak osto-tantaz beterik...
Biotza tristerik.

Baratzaren lillurak agur,
txoriñu biurriak urrun,
ai biotzaren itun!

Xuspertu naiz usu.
Ainbat liburu
inguru-minguru,
txori-antzo liru-liru,
lore zabal zaintsu!
Ara or nun iñutu,
eder-miña nun lasaitu.

Baratzeko osto illak,
udazken ankerrak eraillak!
Udazken,
zer esan nai didak?

Biziaren laburra
ba-zekiat;
ostu utsalak gaituk,
bidaztiak.

Alere, ez nauk kuzkurту.
Jaso diat ire kontseju:
"ostu-orde frutu;
garaitu nai badek,
ildoan sartu".

Bideetako ostoak
zizta didate biotza.
Lipar batez tristerik,
argitu zait laiotza.

Udabarriaren zai,
berriro alai,
lanean ernai.

RAMON SAIZARBITORIA

Donostia'n jaio zan 1944-IV-21'an. Batxilleratoa ta Ekonomikak. Euskaltzain urgazlea. "Zeruko Argia"-n idatzi dau batez be. Liburuak: *Egunero hasten delako* (1969), eleberria, *Poesia banatua*, *Mendebaleko Ekonomiaren historia* (1970).

Euripean

Euria une batean
hosto gainetan
gelditu
eta gero
lurrera erortzen zen...
Viet-nam-en
bonbardeamendu itsuek
jarraitzen zuten.
Paris-ko estudianteak
Sorbona hartu zuten
eta
hemen euriak
jarraitzen zuen
oraindik;
Renault-eko
langileek
fabrika hartu
zuten
eta

hemen oraindik
euria
hostoetan gelditu
eta lurreratzen zen.

Euriak
leihotiko kristalak
indarrez
astintzen...

Ni eserita
tanta-tantaka-
euriarekin batera
hiltzen...
Euri-pean
jaso zuten preso;
begiak erdi itxita
ikusi nuen joaten
pauso-pausoka-
suiztar inkonformismoa
heltzen.
Euri-pean
—mila urte
inguruko tradizio
errebolusionarioa, eta abar,
eta abar—,
Euri-pean
—holako
tanta lodiak-
demokrazia
konfederazioa
kapitalismoa az-
katasuna eta abar
eta abar.
Eta
ni ere euri-pean.

PATXIKA ERRAMUZPE

Aldude'n sortua 1944-IV-16'an. Kantaria. Musika ez-ezik, izkia ere berea dabe abesti askok. Politak dira.

Maita beti bizia

Nere adixkide hoberenak
utzi ninduten bakar-bakarrik,
neretzat ez zen gehiago
ez iguzki, ez itsaso.

Ez nuelakotz lagunik!
gogo tristerik!...
Banindoan bakarrik
ez nakin zergatik !...

Neretzat ez zen biharamunik,
gertatua ahantzi ezinik
nere gogo-bihotzean
maitatua zen hotzean!...

Banindoan bakarrik
bihotza ilunik,
iduri ez biharrik
ez nuelakotz lagunik!...

Bainan amets baten pare, oro
gogotik baztertu nintuen gero!...
Argi ahul baten garrak,
eman daut bizi indarra!...

Ez, ez noha bakarrik, -
pitz hadi bihotza!...
Johan nadin aintzin
maitatuz beti bizia!...

MARTIN GARIN

Gipuzko-Goierriko Olaberria'n jaio zan 1944-V-10'an. Politika Zientziak Madrid'en egin ebazan. "Zeruko Argia"-n idazten dau. Poema sozial asko ditu argitaratu barik.

Gaur...

Gaur
nik, nahi nuke,
zerura begiratu,
lurra hauts egin
nere eskuetan
eta zabaldu,
goian,
zeru ondoan.

Gaur
nik, nahi nuke,
odolean sentitu
nere Herriaren ohivak.
Banatu euskal
ezur zaharrak, umeenak,
gurasoenak, emegalduenak,
apaizenak...
Eta
erre, bi harri zahar
igurtzien
garrarekin.
Sentitu,
ezur zaharren
idatzi gabeko
istoria.

Gaur
nik, nahi nuke,
ez jakin
nola
utzi zituzten
euskaldun haiek
beren ezurrak.
Ez jakin,
nola
hil ziran. Askoak,
bakarrik,
bakarrik, gau
illun batean
edo
egunez besteekin batera,
gerran
edo konformidadean
penaz
agur egitean.
Gar
horrek
esango dit,
zer
izan zan
ezur haien
pentsamentua eta
sentimentuen
mamia.
Gar
horren
keak,
esango dizkigute,
haien
begien samurtasuna
umeen negarrari begiratuaz.
Ezur zaharrak.
erreko dira
denboraren
zorromolloan.

Eta,
gero,
haien,
bizitzen laburpena,
gu,
euskaldun berriak :

EUSTAKIO MENDIZABAL BENITO

Itsasondo'n jaio zan 1944-X-9'an. Errepresio latzaren denpora zala-ta, gorriak ikusi zituan Donostia'n, Zumaia'n eta Zumarraga'n. Algorta'n il zuten 1973-IV-19'an. Oraindik ikasle zala "Olerti"-n atera zitun bere olerki lanak.

Maitasuna

Sinismena ta itxaropena, eta zu, maitetasuna,
begirun aundiz agurtu bear genuken irutasuna.
Iruetan nagusi, ordea, ta deno batzen gaituna,
zu zera iñoiz loitu gabeko onbide eder, deuna.

Ludiak aiña urte dituzu, ene onbide maitea,
baiñan alare iñoiz zartzeke, beti dirauzu gaztea.
Zu zera gizan-emakumeak lotzen gaituan katea;
lokarri on autsi ezkeru, agur gure izatea)

Etzaitut ongi ezagun, baiñan zure ondorenen nabil,
gaur atsegabez, biar zorion, baiñan uste onaz, langil.
Zure izena abestu gabe ez naiteke egon ixil;
bizitza ontan nagon arteño, an-en etzaitzezela ill

Sortze bertatik nigan daramat zurekiko maite-miña,
eta geroztik aundiagotzen doakit dizudan griña.

Zu zaitut nere zorion-pake, poztasun ta atsegiña...
Zu gabe, berriz, dena deritzait itsas-sumin irakiña.

Gazte-gazterik maite-ametsez dadukat biotz barrena,
ta gizartean arki nai zaitut gizonen laztan gurena.
Zugan arkitzen bai dut zorion ta atsegin aundiarena,
eta zugandik urrun ba nabil gaitz iduritzen zait dena.

Zure aurkako eriotz-arrak nastu du pake-bizitza,
eta gorroto zital orrekin burrukan gogor zabiltza.
Irabazle nor izango ote dan zalantzan daukat biotza...
Zure amaia ikus baiño len betor nigan eriotza!

Gure bizia izanik orren laburra edo txit motxa,
zu zapaldua ikusitzea zait gaitza bezin mingotxa.
Denak gorroto bazaituztere zaitut zorion-ametsa,
eta zu gabe bizitza au zait eriotza ainbat utsa.

Oi maitasuna! Amets bidetan ez nazazu utzi bakar;
zure gurariz txoro nabil ta izan gaitezela alkar.
Zuri dizudan irrits kutun au nigan bego beti azkar,
maitasunak bat izatea, ta onek pakea bai-dakar!

IBON SARASOLA

Donostia'n jaioa, 1946-VII-11'an. Injinerutza ikasia dau. "Jakín"-en, "Anaitasuna"-n eta "Zeruko Argoa"-n idatzi. Bere idatziak: *Euskal-poesia gaur* (1967), "Jakín"-en datorrena; *Poemagintza* (1969), *Euskal Literaturaren Historia* (1971) eta Gerraondoko -poesiaren Antologia (1973).

Illuntze eta jai-egunak

Elas! erdi-itzal epelak
kee geldi
Elas! isilik leiho ondoan
ilun nahastuan
egun batetik bestera ahazten diren
amodiozko mintzoak
beharrira esan behar direnak
musika eta irrien txorabio xoroan
"Valsaren zorotasuna!
Jiratu eta jiratu ezertan pentsatu gabe"
Elas! uda zabalak
tristezia errazak,
xarmantak hondar gainean
esaten diren
hitzak
denborak
joaiten direnak
dibagatzen dibagatzen...

Nire hitzak

Hura gelditzen denean
sua itzaltzen denean
haizea joaiten denean
nire hitzak
ez dute paper bat kausitu nahi
eta nire poemak
eremuko bertsolari izengabekoaren
jardun banalak lez
dira.

Artzain ona

Artzain ona
ehun ardi izan eta

larogeahemeretzi galdu ezker
bata bordan utzirik
galduen bila joaiten da
kausitu arte.

DANIEL LANDART

Amikuze (BN) araneke Donostiri'n jaio zan 1946-XII-11'an. Irarkola-lana dau ogibide, Baiona'n. "Herria"-n, "Gazte"-n, "Enbata" eta "Le Courier Journal"-ren prantes astekariaren euskal orrian idatzi dau batez be. Antzerki batzuk bereak ditu, baita... *Hogoi urte* (1968) ta *Aihen ahula* (1978) liburuak ere.

Zure begiek...

Zure begiek
Ene maitia
Ba dute biek
Dirdir eztia.

• 0 *

Zeru Kolore
Miresgarriak,
Itzarren pare
Xoragarriak.

* * *

Gazte gaztia
Zara oraino...
Egun guztia
Nago zuri so!

* * *

Zure begiek
Errotzen naute
Eta guztiek
Nahi luzkete.

* • *

Gaua delarik
Mundura jausten
Jauna zerutik
Da urrikaltzen.

• • •

Zure begien
Goxono hori
Egon dadien
Eder ta garbi.

w • •

Ene nahia
Zinez haundia:
Zu izatea
Nere andrea!

AMAIA LASA

Gipuzkoa'ko Getari'n jaioa, 1948 - VIII-8'an. Irakaslaritza osotua. Mikel Lasa'ren arreba. "Zeruko Argia"-n sarri idatzi eban itz lauz. Badau olerki-pillo bat be, "Olerti"-n argitara emonak: "Hitz nahastuak" (Bilbao, 1977), 68 or., Zugaza Argitaldaria.

Kaiu erdi hilaren
hegapean sartu ginen
gure maitasun bila
erdi hila bare
bihurtu nahiean.

egunean
desioaren gogoa hila.

gauean
gogoa desiratua.

beti, ia beti
nahi behar izan, bainan...

gehienean
hutsaren hasarrean.

kaivaren begiak begiratu nituen
arratsalde brumatsu, hits hartan
begi borobil haietan erantzun bat
aurkitu nahiean.

kaiva nigana etorri, muxu bat eman eta
hegarekin lepoa eutsi zidan,
nere min trixtea goxatu nahiean.

eta haitz geldi, ixil hartan
sartu nintzen,
maite gogoa izpi bat ixil arazi nahiez.

Ohean
narru gorri, eskuak han nituala
argi itzalean
ilunpearen izkutuan,
amodioaren heriotzara ninjoen.

Ohe guztian bihurritzen nintzen
maindireak eta estalkiak bihurritasunean
nahastuaz.

pentsamenduan muxu bat
pentsamenduekin bi beso bizkar gainean
desioarekin, nahitasunean, laztan herioan.

gizon haiek
beren indarrak, haraginak, lurra heriotza bihurtzen...
gizon haiek
izerdi saminean
danak batean, bat eginda, danontzat mundu bat egiten
ikusi nituanean...
lotsea sentitu nuen.
ni, han, nere problemarekin,
nere pentsamenduarekin,
nere biziarekin,
ni, nigan aurkitu nintzanean...
lotsa sentitu nuen
eta nere aurpegia gorri-gorri ipini zen
gizon haien aurrean.

buru hutsa
buru huts harekin
begiak higitzen nituen,
nere gelako mila aurpegi diferentereri
so eginaz.

Bizia balu bezala
haren maitasun hilak.
Eta aurpegiak nere ohera
haren gorputza beroa
ekarriko balirake bezala.
Buru huts, hotz harekin, hotzez
zutaz amets egin nuen
eta biharamunean,
nere burua betea
eta bere gorputza hurbil aurkitu nituen.

JUAN MARIA IRIGOIEN ARANBERRI

Ramon Irigoien, Altza'ko osagille ta euskal olerkariaren seme-alabetatik Altza'n bertan 1948-IX-30'an jaioa. Lenengo ikasketak Altza'n osatu ostean, egin zituen batxilerra ta ingenierotza. Beronen euskal liburuak: *Hutsetik*, 1974'an Irun'en saritutako poema idaztia (Donostia, 1975) ta "Oilarren berria, argitara gabe.

Maitasuna

—Maitasuna,
noiz zure eguna!-
Maitasun bila,
haize-kolpetaz,
itsas-uhinetaz,
izar-distiretaz,
eta batez ere,
gizonen hutsunetaz
elikatzen den gizona
naiz ni.
Bainan hutsune horietako batean,
nik ondo dakit,
noizbait,
zure azala eta nerea,
gorputz bakar baten azala
eginen direla.

Hutsa,
bai.
Hala ere,
huts eta su
Ludi erdian elkartzen direlako,

gure hutsean
finkatuko den
maitasun gaztelua
ongi oinarritutako
gaztelua
izanen da,
eta ez du haizeak botako.

Antsiaz,
nire besoak,
ene gorputz osoa
zure hutsaren kontra
hestutu nahi nuke...
—Maitasuna,
noiz zure eguna?—

Aingeru bat etorri zait:
—Egizu loa—.

Orduan,
gure azal batu hortatik
zure irriparrak,
zure negarrak,
zu oso-osorik
izerdituko zintuzket...

Horrelaxe,
zu eta ni,
ni eta zu,
azkenik,
benetan bat izanen gara...

Bitartean,
bakarrik.

Maitasuna,
noiz zure eguna?—.

Egizu loa—.

Lo eginen dut,
bai,

bainan esnatuko naizenean
gure maitasunak

Ludi-erditik hasita,

haize-kolpeak,
itsas-uhinak,
izar-distirak,
eta batez ere,
gizonen hutsuneak
besarkatuko ditu.

MANU ERTZILLA

Atxondo ibarreko olerkaria. Oraintsu argitaratu du poema bat: **Hitzik ainitz idatzi dut** (Bilbao, 1977); Durango'ko L. Zugaza argitaldiak. 116 orrialde.

Haizea

Haizea
gaua
iluna eta bakardadea.

gau iluneko haizeak
bakardadea dakarkio
ene bihotzari

haizea
gaua
iluna
bakardadea eta euria

gau euritsuko bakardadeak
hizozten du ene bihotza

bakardadea
haizea
euria
gaua eta ni ororen erdian.

Gizona

Gizon jarri zen
paper zuriaren aintzinean
eta ezin izan zuen
ezer sortu
asmabidearen iturria agortu bai zuen

maindireek destolestatu zituen
eta amets egitea
nahi izan zuen

zoritxarrez
egun hartan
ametsak ere antzu ziran
gogoia ham txiroa eta urria zeukan.

JON ENBEITA

Ona gazte itxaropentsu bat, B. Enbeita'ren semerik gazteena. Bertsolari ta olerkari dogu batera: 30 bat abesti ditu bereak, erriz erri bertsolari ta olerki liburu bat dauka gertu, *Inguruaren arduraz*. Muxika-Areatza'n jaioa dogu 1950-III-22'an. Iruña'ko "Principe de Viana"-n ditu batez bere neurtitz-lanak.

Orratx

Orratx edur zuri
beratx mendietan
exuri xalo antzo
beko zelaietan
zure esku leunak lez
nere matrailetan.

Garbi ta leiar
mosu ta laztan
odeien errainu zuri
zure begien
zure ezpanen
xamurtasunen irudi.

Mendi lakarra elurpean lez
legun, igeri, goxotan;
elur maluta zeruan bainintz
aizeai emanda lotan.

Zure mosuen zoramenean,
maite, murgildu nahi dot nik
zure maitasun garbian egaz
laztan aizetan etzanik.

KOLDO IZAGIRRE

Altzan jaio zan 1953-VI-21'an. Lasailletarren eta Jesuiten artean ikasi zituan len-letrak eta Filosofia. Ordun euskal literaturaren zaletu zan. Berea dau: *Itsaso ahantzia* (1976), poema liburua, Kriselu'k argitaratua. "Karmel"-en argitaratu ditu beste kopla batzuk.

Ez dakizue ezer

zuek ez dakizue zer den
gauero kalenderaren numero bat tatxatzea
eta ilun-jarioari
tiro ezin emana

zuek ez dakizue zer den
norbaitek igurikiko digula
sinetsi nahi izatea.

zuek ez dakizue zer den
gizonaren negarra
ilunabarra kopetari atxikitzen zaionean

zuek ez dakizue zer den
euria

zuek ez dakizue zer den
bakarrik egotea
bakarrik
bakardaderik ere gabe

zuek ez dakizue zer den
ezer

zuek ez dakizue ezer

MIKEL ARREGI

Areso'n jaio zan napartar gazte au, 1948-III-17'an.
Amar urtez garoztik, alan be, Donostia'ko Antiguu auzoan
bizi yaku. Bere ikasketak, teologiara arte, Donostiko

Apaizgaitegien egin ebazan, gero EUTG ikastetxean
Jakintza ta Letrak ikasirik. Beasain'go Lizeoan irakasle da
gaur. Berea dau: *Hego haizearen konpaseant'* (1975),
olerki-xorta, J. M. Lekuona'ren itzaurreakin.

Kantatuz

Kantatuz eta kantatuz noa
azken pausoak ematen
pixkanaka
pixkanaka hilerriko zuloruntz
abiatzen.
ene bertsoa ez da seguroa
sentitzen dudan bezalakoa;
sentitzen ahaztu egin zait.
ilunaren babesak
nazkatu nau,
eta ez dut bereizten
zer den argi eta gau.
horrela ez da posible
egunean batetan izatea
libre.
ene azken bertsoa
hitzik gabekoa
izatea nahi nuke,
hitzek ez baitute esaten guztia
gizonok gainean
daramagun desgrazia.
Begirik gabe ezin ikus
eskurik gabe ezin hel
eta gizon izanik
ezin gizon izan
(hau asmatu zuenak ez du erantzunik).
bihotzaren zztada
gazteak
zerbait egin ahal baleza
hain estraino
zaiganaren figura

nolabait aldatzeko,
lurpean egonik ere bizitzeko...
horregaitik,
kale erdian bota nahi dut bertsoa
denen aurrean altxaturik
lepoa,
lotsarik gabe,
honek erremedidorik ez duela
defenditzen
dutenen aide.
kantatuz,
arrixtuka,
oihuka,
ez dakit nola,
nahi dudana denek ikus dezaten
kale erdian dantzan.
Zortziko haundian edo trikian
baina kale erdian
besteak bezalaxe paseatuko den
bertsoa kantatu nahi dut.
sonbrerorik gabe
korbata ere ez da beharrezkoa
baina azeraz azera
eta kalez kale.
ZORTZIKO HAUNIAN EDO TXIKIAN
BAINA KALE ERDIAN
PASEATUKO DEN BERTSOA
LAU HAIZETARA
DONOSTIATIK IRUNARA.

MAÑEX PAGOLA

Landibar (BN)'en jaio zan 1941-VI-28'an. Apez-
karrera ikasia. "Gure Herria"-n, "Herria"-n "Enbata"-n
idatzi dau batez be.

Itsaso ondoan

Itsaso ondoan uhainer musuka
ta mendi gainetan zerurat otoizka.
Hor Eskual-Herria ari da galdezka
eskualdun guziek dezagun besarka.
Maite duten semeak dezatela tinka
lehengoen hitza berriz hartan finka
oi! eskualdun seme ez maita erdizka
bainan gora kanta gure errepika.

Idek ditzagun begiak
zabal bihotz hertsiak
eta ikus zoin amultsua
dagon Eskual-Herria.

Eskualdun semeak eskuara badaki
erdarean ere trebe ta polliki
gizon jakintsuna hor bada ageri
horra eskualduna nausi kaskoinari
Etorriko dea bazkoi berrikari
bere gaintasuna Euskal-Herriari?
Oi entzule maite, ihardetsak huni
bihar're eskualdun nahi haiza bizi!

GEXAN ALFARO

Urepel'en jaioa 1941-VII-21'an. "Herria"-n, "Gure Herria"-n, Argia"-n eta abar idatzi dau, "Gexan Lantziri" ta Xemartin" izenez . Lan orrean artean ba-ditu olerkiak be.

Bake oihu I

Oihu eginen dut bai oihu
nun-nahi eta noiz-nahi
egiazko bakearen aide!

Indarrez eta zuzen kontra jarri
bakarrik nik ez dut nahi
zuzentasunik gabe.
Egun bakea dugu galgarri,
injustizi guzieren gain estalgi!

Zertako eta zertaz oihu egin
guziek adi dezagun
zuzentasunik gabe
ezin dezakegula herrian
egiazko bakerik zutik eman!

Herrien eta gizaldi guzieren
arteko bakebidea
zuzentasunez eta
libertadez da moldatua
maitasunez delarik azkartua!

PEILLO MARTIN ZABALETA

Legazpia'n jaio zan 1942-XI-10'an. Italia'n eta Alema-
nia'n ikasia. Ainbat olerki eskiñi dizkigu "Olerti"-n,
"Egan"-en eta Aranzazu"-n.

Halaz ere, itxaropen

Non duzu irripar,
atzo oraindik beroa,
zure ezpainen ez dute gehiago
erretzen zuten sua.
Lurraren magala otza dago,
maitasunak bildutako gorputza
han uzteko. Agian berotu nahi dut
besoetan berriro,
nere bihotzeko atsa erantsiz
zuk nere dehiari erantzuteko.

Gorputz maitean doa oztuta
betirako zure izena, lurperatuz
harekin dagoen korapiloa
hainbeste oroipenez,
pozez, saminez, irriparrez
egositakoa. Agian ez zara
betirako galtzen,
amodio baten besoetan
lurraren barnean ehortzirik
geraturik ere, negarrez bagoaz
ere, atsekabetan itxaropen
zuzia dugun arten.

Gure negar malkoak bedeinkatzen dute
zure hilobia, itxaropenez hantxe
ernetzen da landare berria,
Jesusen gurutzetik bezala
betirako dirahun bizia. Agian gaurtik
guk ere heriotzerekin dugu
itxaropena itsatsia, eta hartan dago
aldaturik betiko argiaren zuzia.

BENAT SARASOLA

Sokoa'n(L) sortua dogu, 1942-VII-9'an. Gaur maixu dago Zubero Domintxin'en. "Herria"-n, "Txantxikitin"-en eta abar idatzi dau, itz lauz eta bertsoz.

Donibaneko Portuan

Donibaneko portuan
uraren gainian
geldirik dago,
husturik dago
"Eskual-Herria".

Untzi horren zortea
zoin den gure
Harriaren idurikoa!
Nagusiek egin zuten
diru biltzeko on zela.
Berdin dira gure
herri-gizonak
gure herrietaz baliatzen.

Donibaneko portuan!...
untzi horren zortea
zoin den gure
Herriaren idurikoa.

Arrantzaleak dira
lanik gabe gelditzen;
berdin dira gure
herri gizonak
gure herriaz baliatzen,

bainan ebasleek
berena ez! zaukaten.

Donibaneko portuan!...
untzi horren zortea
zoin den gure
Herriaren idurikoa.

Eskualdunak dira
galduta gelditzen;
holako nagusien
beharrik ez dugu!

Donibaneko portuan
uraren gainian
geldirik dago,
husturik dago
"Eukual-Herria".

ABEL MUNIATEGI

Ereño'n jaio zan 1942-IX-30'an. Deusto'n ikasi eban Eskugoa. "Aranzazu"-n, "Goiz-Argi"-n, "Karmel"en ta olakoetan idatzi dauz. Euskal ekonomi ta kulturazko itzal-diak sarri egin ditu; baita bertso-saioetan bertsolariak sutu be.

Hil da...

Hil da Gabriel Aresti,
borrokari ta amesti.
Beste mundura ihes egin du
bere mailu eta guzti.

Eskuan mailu berria
landu nahiaz Harria,
Kantauriako itsas ertzean
gure asabek jarria.

Trumoi eta hodei beltzak.
Nun dira jolas ta dantzak?
Zizel ta mailu landu beharra
Harri zaharraren ertzak.

Egun sentian zotinak
zurrunbiloan sorginak.
Goizean goizik mailu hotsa du
Aresti gure harginak.

Hargintzan ofizioa
harrizko afizioa,
Harri landutan egin nahirik
Euskaldun Palazioa.

Gaur lehertu da lanean,
Herriaren barrenean,
Euskal Harria borobiltzeko
enpeinu ta afanean.

Hil da Gabriel Aresti,
borrokari ta amesti,
bere lurean bizi ezinik,
mingots, garratz eta ezti.

JOSE ANJEL IRIGARAI

Iruña'n sortu zan 1942-X-9'an. Nafarroa'ko uri nagusian osatu bere ikastaroak, eta gaur sendagille dogu. "Ez dok amairu" kantari ba da. "Zeruko Argia"-n idatzi dau batez be. Berea dau: *Euskera eta ba* (1973). "Larreko" euskal idazle jatorraren billoba ta Aingeru Euskalt zaifiaren semea.

Nafarroa

Nafarroa
nere sort-herria,
beregana du Euskal Herriak
betidaniko erroa.

Gizon ereduek dute altxatu
zure izena,
gizon ereduek ba-zekiten
beti nafarrak izaten,
eta herria
beti
Nafarroa egiten.

Nafarroa
hain zuhur
eta hain eroa.

Zure argia
zure baitaren baitan dago
erroaren erroan datza,
zure nortasunaren
berezitasun handiengan.
Nafarroa
beti arroa.

Jakin behar ordea
zerengatiko arrokeria.
Ohargabeen,
zure burua duzu
bidagurutze latzean.
Ekialde eta mendebaldeko haizeak
firri-farra
nafarra,
zure ondotik dabilta,
lili gozoaren ondotik
erleak dabiltzan bezala.

Atera-bidearen nabaitzeko,
aski dukezu
zure barnearen behatzea
agramontesa.

Kantore zaharraren hitzak
aditzen dituzuia?:
"Nafartarren arraza
hila ala lo datza?"

Nafarroa,
zure gainean nagoelarik,
maiz pixka bat gehiago
osatzen
eta nortzen.

Nafarroa,
egin zutena
egiten duguna
eta eginen,
Euskal Herriaren erro zaharra,
oraiko arnas berria,
ez da hilen.

MIKEL A. INTXAUSTI

Igeldo'n sortua 1942-XII-10'an. Sorbona'n ikasi dauskuz Filosofia eta Letrak. Deusto'ko Ekonomia Ikastetxeak, 1968'an, antolatu eban ipuin sariketan bigarren gelditu zan, eta urte berean poesi saria eskuratu eban Donostia'ko "Agora"-n, bere "Euskal hilobiin".

Haurra:

txori?
txori al zara?
ni erreka naiz ta goitik behera noa
igesik
saltoka
harriak bustiaz.
arratsaldero hemen zaudela diote ene aizpak
zu zera?
zu, txoria?
ni erreka ta banoa, ez gindezke gehiago mintza;
min dut gaur
min zait zakurra.
entzuten al didazu? txori?
zakurrak ozk egin dit
hemen
giza zipriztin billa nenbilenean
Edipo erresuma ta kultura banatzen dituan zuloan
tabu-ren mugarritik ez urrun
ozk egin dit
hemen
hizkuntzan.
adio, txori, sarri arte. itsasoak ittoko nau,
bihar datorren aizpa gaztearekin mintza zinazke
adio... adio...
...eta harriak egunero datoz
beheraka.

JOSE MARIA AGIRRE

Ataun'go semea, an bait zan sortu 1943-VI-29'an. Fri-burgo'n ikasia ekonomi-karrera. "Jakín"-en eta "Zeruko Argia"-n idatzi dau. Ba-ditu poema jakingarriak be, argitarata gabe.

Egia garesti dala

Heldu zen udaberria,
kantuz hasi henaria.
Lagunak preso jausi direla
iritxi zait gaur berria.

Urtu ziraden elurrak.
N arrotu otso-zakurrak,
oraino ere minberaz daude
ene lagunen hezurrak.

Lanuak dire odoldu,
gozin prestuak ixildu,
behin berriro gure Sisifo
maldaz behera amildu.

Kontzientziak urratu,
"Bakea" dute saldu,
lau orma artean egin dituzte
bizirikan enterratu.

Indarra dela morala,
ordena dela kabala,
agertu dute gizonarentzat
egia garesti dala.

ohartu gabe hemen noa
nora ezeko bidean
itsasoaren oinetan
heriotzaren ertzean.

urik gabeko itsasoan
nabila igerian,
ondoan sugeak ditut
ta ni nago erdian.

zuhaitza gabeko baso
plai ondargabea
zuen antzekoa dut
mundu hontan suertea.

zeruan ez da izarrik
aldegin du haizeak
negarrez erori dira
basoko landareak.

debalde etorri nintzen
eta debalde noa
dagoeneko prest dadukat
hilerriko zuloa.

orain gaztea naiz eta
lehen berriz mutiko
ihesia doan kea naiz
ezkutatuz betiko.

desertuko haize bero
hego haize epela
zure gainean joan nahi dut
ondar alea bezala.

zimenturik ez dut eta
teilak jartzen hasi
ustez altxatako etxea
lurrera zait jautsi.

"Kirieleison luzea
kantu lehor zatarra
eguzkia badoa
egin beza langarra".

MARTIN TEJERIA-EIZMENDI

Erretereri'n jaio a 1951-VI-22'an. Pasaiako Salestarre-
tan ikastetxean offset litografiko jarduna, eta ogibidez
ortan lan dagi gaur. Euskeraz "Zeruko Argia", "Oarso" ta
"Zabal" aldizkarietan idatzi izan dau, gordetzat "Martin
Legarralde" ta "Hostoa" erabillirik.

Ene

Ene!
eta nik uste nuen
bizitzeak
mila kolpe emanen zuela
haizetan,
gero
bainan gero
oharpenak ikasiz
ikasi dut, badakit
bizitzeari
keinu motxetan galduz
airetan
eskapatzen zaizkiola haizeak.

Ene!
eta nik uste nuen
bizitzeak

ez zuela eskapatzerik
eta nik uste nuen
mila kolpe emanen zuela
haizetan.

JESUS ANTONIO ETXEZARRAGA ZULUAGA

Naiz-ta Bilbao'n Gordoniz kalean jαιο ta bateatua izan,
1953-1-3'an, Zeanuri'ko Alzusta auzotegikoa da jatorriz.
Deustu'n diardu ikasten. 1977-9-21'an Laukiz'ko gazte-
taldeak sariketa bat jarri eban, bertako seme Esteban
Urkiaga, "Lauaxea"-ren omenez, zeanuristar gazte onek
jaso eban olerki-batzaldi artako len-saria.

Domu Santuz

Zuek
fusilen suzko herio tantaz
gure joanean eroriok
zuek
gure gau gorri ongarri
egiten duzuen odol-hariok
zuek
gure ezinbestezko bideetako
harrilosa ta kantugai
zuek
gugan bizi zaretenok
gu ausartu ez ginen pausuok
zuek
gure aitzin-gibeleko barrikadok
gure ukabilen hatzamar hautsiok
zuek

fusilen suzko herio tantaz
gure joanean eroriok
zuek, gureok.

Toloño

Toloño,
gure Toloño.
Europa beheko
mendiño.
Euzkadi gureko
kopeta
ta killa.
Lepo atze
zabala,
Errioxa, Trebiño
ta Araba,
eremuko errexala,
gure Toloño.
Arabako beleen
haizea
gure Alostorrea.
Ebrope sugoiaren
gerizpea.
Orratz galdua,
dorretxe
mila aldiz errea.
Zerupeko gailur
bakarra,
ibesbide gudukatuen
negarra,
gaztelu zahar
gogorra,
gari harri
gorra.
Gorbei saiheitsak
eta Gipuzkoak
bildutako sua:

berbea,
testigu bakar
mutua,
eusker a labratua.
Zazpi errosario
lau misterio
bi herio
ta txakur pinto
mozkortua,
gure bihotz
ihartua.
Toloño, ai oil
gure Toloño.

AURKIBIDEA

Orrialdeak

Jesus Maria Arozamena	5
Juan Diharze	7
Mixel Labegerie	8
Nikolas Altzola Gerediaga	9
Juan San Martin, "Otsalar"	10
Jean Mirande Aiphasoro	12
Juan Maria Lekuona	13
Biktoriano Gandiaga	16
Alfonso Irigoien	18
Martzel Andrinua	19
Xabier Aranburu	21
Martin Iturbe Balda	24
Txomin Peillen Karrikaburu	26
Jesus Gaztañaga	27
Mixel Itzaina	28
Mikel Zarate Lejarraga	30
Gabriel Aresti	31
Juan Anjel Etxebarria	32
Jean Erdozainzi-Etxart	34
Daniel Baztarrika	35
Enaut Etxamendi	37
Xabier Azurmendi	39
Iñaki Zubizarreta Agirre	40
Joseba Intxausti	41
Jose Agustin Orbegozo	44
Eusebio Igartza	49
Antonio Bilbao	51
Mikel Lasa	52
Jose Antonio Artze	53
Luis Mari Mujika	55
Fermin Iralagoitia Mendibe	57
Jose Azurmendi	58

Orrialdeak

Paulo Iztueta	62
Lorenzo Zugazaga	64
Xabier Lete	66
Jose Lizarralde Altona	68
Ramon Saizarbitoria	70
Patxika Erramuzpe	72
Martin Garin	73
Eustakio Mendizabal Benito	75
Ibon Sarasola	76
Daniel Landart	78
Amaia Lasa	79
Juan Maria Irigoien Aranberri	82
Manu Ertzilla	84
Jon Enbeita	85
Koldo Izagirre	86
Mikel Arregi	87
Mañex Pagola	89
Gexan Alfaro	90
Peillo Martin Zabaleta	91
Benat Sarasola	93
Abel Muniategi	94
Jose Anjel Irigarai	96
Mikel A. Intxausti	98
Jose Maria Agirre	99
Martin Tejeria-Eizmendi	101
Jesus Antonio Etxezarraga Zuluaga	102